



Autogestioa eskolako jantokian **Cateringaren alternatiba bideragarria**

Edorta Jimenez: «Tele-zaborraren kakatik salbu daukagu euskara, baina ez euskaldunak kaka jatetik»

- **Gerla Handia, muga sakona** Euskaldunak frantsestu zituen guda
- **Ander Iturriotz:** «Euskal literatura ez da zero platoniko bat... eta orain arte hori izan da»
- **Paul Rios:** «Urrats berriak ezker abertzalearen aldetik emango dira, ez ETaren aldetik»
- **Marleen Haboud** Andeetako hizkuntzetan aditua



NOBEDADEA

Kosmoiet

Izarretako misioa

Hemen duzu planeten misterioak argitzeko mahai jolas berria.
Bihur zaitez espazio-ontzi azkar baten pilotu eta konkista itzazu Lurra eta Eguzki sistemako beste planetak.



+8



2-4



40-60 min.

29 euro

ARGIaren harpidedunek
%15eko deskontua

Ludi**toys**

Eskaerak: 943 36 86 61
info@luditoys.com
www.luditoys.com

- 4 Deabruaren abokatua: Joseba Etxeberria.**
Sustrai Colina.

Pertsonaia

- 10 Edorta Jimenez: "Gure lana boterea biluztea da".**
Sustrai Colina.

Iritziak

- 19 Gora Pro Nobis.** Asisko Urmeneta.
20 Ttakun (h)errenka. Eskuturrekoa. Ana Urkiza.
21 Espainiera hautatzeko eskubidea.
Urtzi Urrutikoetxea.
Batera. Joxemari Ostolaza.
22 Usurbil. Iñaki Barcena.
Kooperatibak... Andoni Mujika.
23 Zirtak. Erretretaren afera. Jose Inazio Basterretxea.
24 Bertso berriak. 44. Onintza Enbeita.

Erdiko kaiera

- 25 Ander Iturriotz: "Beste literaturetako botere-borroken aldean gurea ez da ezer".**
Gorka Bereziartua.
30 Liburuak. Gema Lasarte.
31 Diskoak. Iker Barandiaran.
32 Ezpalak eta Abarrak. Jon Torner.
34 Denbora-pasak. Ana Zambrano eta Kike Amonarriz.
36 Zientzia. Joxerra Aizpurua.
37 Landareak. Jakoba Errekondo.
38 Denboraren makina. Nagore Irazustabarrena.

Termometroa

- 39 Paul Rios, Lokarriko koordinatzailea: "Poliki, baina ate bat irekitzen ari da ezker abertzalean".**
Mikel Asurmendi.
46 Bero-beroan. Juan Mari Arregi, Onintza Iureta eta Xabier Letona.
48 Net Hurbil. Txina kolonialista: potentzia bilakatu auzokoen lepotik. Pello Zubiria.

Azkena

- 50 Mezua eta konpromezua.** Iñaki Murua.

5 | Autogestioa jangelan | Estitxu Eizagirre

Larrabetzuko eskolara jo dugu bertako sukaldeari eutsi dion jantokia ezagutzeko. Azaldu digute nola zuzenean kontratatzen dituzten langileak, nola nekazariekin elkarlanean adosten duten zer kontsumitu... Eta cateringa baino eredu merkeagoa da. Eusko Jaurlaritzari jantokien dekretua birplanteatzeko eskatu dio Euskal Herriko Gurasoen Elkarteak: cateringa edo bertako sukaldea, eskola bakoitzak egin beza aukera.



15 | Bi aldeetako euskaldunak I. Mundu Gerran | Miel A. Elustondo

42 | Elkarrizketa: Marleen Haboud | Nekane Goikoetxea

OHARRA

Aste Santua dela-eta, datorren astean ez da ARGIA kalera-tuko. Apirilaren 18an izango gara bueltan. Bitartean, ondo igaro oporrak.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Erredakzioa: Urko Apaolaza, Mikel Asurmendi, Gorka Bereziartua, Unai Brea, Mikel Garcia, Onintza Iureta, Garbine Ubeda. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L. Argia.com: Lander Arbelaiz, Axier Lopez, Jon Torner.

Kudeatzailea: Berdaitz Goia. Salmenta Burua: Bego Zuza. Harpidetzak: Olatz Korta. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: P.K. 140. 48.100 Mungia. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Iparr Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea. Azaleko argazkiak: Iñigo Azkona/Dani Blanco.

 EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO KULTURA SAILA Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza diruz lagundua	 GIPUZKOA zurekin, aurrera	 euskaraz bai
 kutxa		



“Tranpatxoak bakoitzaren abildadearen parte dira”

Joseba Etxeberria | Ez du debalde hitz egiten

Futbolariak 67 urterekin erretiratzen ez direlako.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Hemen, Gipuzkoaren eta Bizkaiaren arteko haustura eragin zuena!

Askoz helduago egin ninduen bakoitzak berea defendatu zuen zurrumbilo hark. Eskerrak denborak urak baretzen dituen. Azken hamabost urteak hiru izan direla iruditzen zait, denborak arrazoia eman didan seinale.

Oilarra beti oilar...

Zelaian jokalaria ona zarela eta irabaztera zatorrela baizik ez dizute igarri behar. Adina, nekea, presioa... prentsaurrekoetako kontuak dira, ez zelaikoak.

Zergatik daude tranpatxoak gaizki ikusita?

Irabazteko bada, zure taldea izan ezik beste guztiak engainatzen saiatu zaitezke. Gaizki-ikusia izan arren, tranpatxoak bakoitzaren abildadearen parte dira.

Komunikabideekin erabiltzen duzuen hizkuntza, tranpatxoa ez, iruzurra da!

Hurrengo partida dela garrantzitsua bezain argi dago arrastotik irtetea garesti ordaintzen dela. Askorentzat ez gara futbolariak soilik, erreferentziatzat gauzkate, eta lasai bizi nahi baduzu hobe arrastoan segi.

Normala gero gizarteak futbolaz baizik hitz egin ezin duzuela pentsatzea!

Are gehiago, lagun batzuekin bazkaltzen edo garagardo bat hartzen ari naizenean jendea zer taldetakoak diren asmatu nahian ibiltzen da. Baina bai, futboletik kanpo ere badago bizitza.

Hedabideei begiratu ezker, ez dakit ba.

Aspaldi ikasi nuen. Partida ona jokatu dudanean kioskoa hustu egiten dut, eta txarra jokatu ezker ez naiz arrimatu ere egiten. Hori bai, bakoitzak daki ondoen zer egin duen.

Esadazu zuk ere muntaia hau guztia zirkotzat daukazula.

Zirkoa? Futbolik ez dagoen hilabeteen jende bat urduri egoten da zer ikusi eta zer egin jakin gabe. Futbola kirol bat baino askoz gehiago da. Pentsa, Athletic sentimendua dela esaten da...

Jakina, eta zu sentimenduaren alde debalde jokatzeko hasi zara...

Athleticek bizitza aldatu dit, eta talde handien eskaintzei ezetz esan arren, zorretan sentitzen nintzen. Beste inon ez nukeen halakorik egingo, baina Athleticek hori eta gehiago merezi du!

Bai, bai, kontratua berriro nahian dabilzan taldekideak ere asko akordatzeko dira zurekin.

Pausoa eman aurretik taldekide guztien oniritzia neukan. Eurak bezain ondo dakit kontratu guztiak azken eurora arte borrokatu beharra zer den, eta eurekin nago. Baina ziur zaude nire egoerara iristen den beste jokalaria batek ez duela gauza bera egingo?

Presidentearekin ondo, taldekideekin ondo... Zuk Athleticen entrenatzaile izan nahi duzu!

Ez litzateke albiste txarra, ezta? Hori bai, jokalaria izanak plus bat ematen duen arren, puntako jokalaria batzuk oso entrenatzaile txarrak dira, beraz... ■

• ASTERO GAIA •

Autogestioa jangelan

Larrabetzuko sukaldean bertako produktuak

Aurtengo legegintzaldian jantokien gestioa birplanteatzea eskatu du Gurasoen Elkarteak (EHIGE). Legez eskolak derrigortuta daude cateringa erabiltzera. Horren aurrean, Larrabetzuko eskolak erabaki zuen autogestioari heltzea. Mezua argia da: eskolak aukeratu behar du cateringa edo bertako sukaldea nahi duen. Ez da eredu bat bestea baino garestiago.

ESTITXU EIZAGIRRE

Argazkiak: Iñigo Azkona



Autogestioa jangelan

LARRABETZUKO eskolara jo dugu bazkalorduan: 2 urteko haurrak ilaran sartu dira jantokira, aurrekoari mantalatik helduta kantari. Horiek lasai bazkaldu ostean etorri dira arrapaladan 3-12 urtekoak. Usain gozoa dator sukaldetik; Larrabetzuko da bertako sukaldean bertako produktuak prestatzen dituen eskola jantoki bakarretakoa.

2000-3-22ko dekretuak araututakoaren arabera, jantokietan cateringak bakarrik sar daitezke: cateringek prestatutako janaria zerbitzatzen da, edo cateringak ekarritako produktuak prestatzen dira sukaldean. Ez eskolek ez gurasoek ez dute produktu eta prestaketaren berri. Nondik datoz? Zer eredutan ekoiztuak dira? Nola manipulatuak dira? Non daude sukaldeak? EHNEk 2007an egindako ikerketaren arabera, Lea-Artibaiko jantokietan zerbitzatutako jakien %90 kanpokoak dira.

Larrabetzun, ordea, eskola jarri zenetik (duela 26 urte inguru) elikatu dira ikasleak bertako sukaldetik. 2008ra arte eskola dezentek eutsi zion sukaldari. Duela bi urte, ordea, Eusko Jaurlaritzaren “proposamen” hau heldu zen: gestio zuzenera pasa, edo sukaldariak (administrazioko langileak) kenduko zizkieten.

Bertako produktuak, zuzenean kontratatutako langileak, bertako sukaldea... eta gurasoek cateringa baino 0,35 euro gehiago bakarrik ordaintzen dute

Eskolako negutegiaren aurrean, zuzendaria, guraso eta nekazariak. Ezkerretik eskuinera: Alberto Eskobal, Alizia Etxarte, Paloma Undagoitia, Amaia Etxehandia, Eve Amez eta Aritz Maiora.

Azaldu beharra dago izenen ironia: “gestio zuzena” zeharkakoari deitzen zaio, alegia, kanpotik datorren cateringa erabiltzeari, eta aldiz, “zeharkako gestioa” zuzenean sukaldean prestatzeari (dena baita nondik begiratzen den. Administrazioa da subjektua, eta ez eskola).

Larrabetzuko Herriko sei lagunekin jarri gara mahai-beltan, bertako esperientzia jasotzeko: eskolako zuzendaria da Paloma Undagoitia; gurasoa eta Jantoki Batzordekoa da Alizia Etxarte; gurasoa, Jantoki Batzordekoa eta nekazaria da Alberto Eskobal; nekazariak dira Eve Amez eta Aritz Maiora; eta jantoki-ko arduraduna da Amaia Etxehandia.

2008an sukaldariak kenduko zizkietela esan zieten zer atakatan egon ziren konstatu du Alizia Etxarte gurasoak: “Urte eta erdi aritu ginen mobilizazioetan, beste eskola batzuekin, eta azkenean guk erabaki genuen jarraituko genuela zeharkako gestioan [bertako sukaldearekin], eta 2008tik aurrera autogestioan gaude. Administrazio-ko sukaldarien plazak amortizatu egin dira eta sukaldariak beste leku batzuetara joan dira. Guk sukaldari eta langileak zuzenean kontratatzen ditugu”.





Zuzeneko kontratazioak

186 haurrentzat hamaika langile kontratatzen ditu guraso elkarteak, zuzenean: Sukaldari bat egun osoz, sukaldari laguntzailea sei orduz, eta beste laguntzaile bat lau orduz; eta zortzi hezitzaile. Lantalde honi gehitzen zaio eskolako langilea den jantokiko ardura-duna. Etxarteren hitzetan: “Asesoria baten bidez egiten ditugu kontratuak, nominak... Lehen enpresa baten bidez kontratatzen genuen, baina bitartekaritza lana asko kobratzen zuen, eta pentsatu genuen zuzenean kontratatzea, eta aurreztutako diru horrekin hornitu genuen sukaldaria”. Langile guztien kontratuak dira aldiak finkoak (ikasturterako kontratatzen dituzte), seguridade soziala eta gainerakoak dituzte...

Gurasoen kontzientzia da gakoa

Larrabetzuko gurasoek beti eman diote garrantzi handia umeei jaten dutenari, “baita jasagarritasunari eta elikadura subiranotasunari ere”, Etxartek nabarmendu duenez. Aritz Maiora nekazariak berretsi du: “Hemengo jantokiak beti erosi izan du herriko harategian, arrandegian eta denda txikietan. Eta baserritarren produktua ere bai, ahal zen neurrian”. Alberto Eskobalek argi du: “Zer da zure seme-alaben elikadura baino garrantzitsuagoa?”. Undagoitia zuzendariak jantokiari zerk eusten dion esan digu:

Zerbaitegatik doaz denak jantokira

Haur bat ezik, beste denak geratzen dira jantokian; 2 urtetatik, eskolako lehen egunetik, gainera. Betidanik jan da ongi, eta nahiz eta guraso batzuk etxean egon eguerdian, haurra jantokian geratzen da. Hori da Eskobalen kasua: “Cateringa etorriko balitz, nik haurra etxera eramango nuke”. Bertako ikasleek gerora kalitatea exigitu egiten dutela adierazten du ondorengo anekdotak: 12 urtera arte ikasten dute Larrabetzun, eta ondoren Deriora joaten dira. Duela aste batzuk greba egin omen zuten: etxeo ogitartekoarekin joan ziren Derioko jantokira.

“Hor guraso talde bat baldin badago gogor, aurrera ateratzen da. Baina indar handia jarrita, ekin eta ekin”. Izan ere, autogestioak bere prezioa du.

Autogestioaren prezioa

Cateringera ez pasatzea erabaki zutelako, administrazioetik erabat kanpo dago Larrabetzuko eskola. Osasun kontrolak pasatzen dituzte, eta hortik aurrera ez dute zerikusirik administrazioarekin. Horrek esan nahi du, noski, ez dutela inolako laguntzarik jasotzen.

Catering bidezko jantokietan, gurasoek ordaintzen dute otorduaren zati bat eta Jaurlearitzak beste zatia. Jantoki hauetan, gurasoek otorduko 3,4 euro ordaintzen dute. Larrabetzuko jantokiko gurasoek, aldiz, 3,75 euro.

Ana Eizagirre, Euskal Herriko Ikastolen Gurasoen Elkarte (EHIGE)

“Onartzen ez duguna da eskolak derrigortzea cateringekin antolatzea”



1996an hartu zuen administrazioak jantokia beregain. Nola baloratu zenuten?

Gurasook garaipen gisa hartu genuen, horrekin bi gauza oso garrantzitsu lortu baitenituen: zerbitzua unibertsalizatzea eta 16 urtera arte jartzea. Horri eman genion lehentasuna, jakinda, hori ez zela nahi genuen guztia: Administrazioaren politika izan zen sukalde berririk ez egitea, zeude-

nak mantentzea, eta borroka handia egin zutenei bakarrik jarri zitzaion sukalde. Eskatzen genuen aldi baterakoa izan zedila eredu hori, zeren ikusten genuen ezberdintasuna zegoela sukalde eta sukaldaria zeukaten jantokien eta catering enpresetik zetorren janariaren artean.

Badirudi eskatzen duguna zerbait berria dela, eta ez da egia: garai hartan onartu genuen eredu batean zabaltzea jantokiak, baina uko egin gabe baldintza onenak betetzen zituen ereduari. Zer gertatu da? Betikoa: Administrazioaren politika normalean zentralizatzea da. Pixkanaka neurriak zentralizatzen joan dira, eta azkenean, eskaintzen dena da eredu bakarra.

Araudia aldatzeko proposamena egin duzue. Zer planteatzen duzue gestioan?

Ikastetxe batek bere jantokia catering enpresarekin antolatu nahi badu, ados. Baina derrigortzea horrela antolatzea, hori da onartzen ez duguna. Batzuentzat erosoagoa da eredu hori, baina beste askok nahia- go dute guraso elkarteetan lan pixka bat egin eta bertako produktuak erosi.

Bi urtez egon gara harremanetan EHNE, komertzio txiki eta udaletako ordezkariekin, aztertzeko ea noraino den aldatzea posible. %100 ezin da bertako produktuekin ase eskaria, gizartea ez dagoelako horretarako prestatua. Baina %20an posible izango zen berehala aldatzea. Kalitatea eta jasangarritasuna dira gure ardatzak. Kalitatea ez da bakarrik nutrizionala, baita ere freskoa izatea eta ez beti izoztua, garaikoa... Jasangarritasuna ere bai, inguruko produktuei irteera eman behar dietelako estamentu publikoek; non? bada eurek antolatutako jardueretan (jantokiak, Osakidetza...).

Zein dira hurrengo urratsak?

Dokumentu hau egiteko EAEko 40 ikastetxe bakoitza gehiagok parte hartu dute, hauetako asko lehen kudeaketa autonomoa zeukatenak. Dokumentua formalki onartuko da EHIGEn asanblada guztietan eta Gobernuari bidaliko zaio. Legegintzaldi honetan gaia sakon lantzea nahi dugu. Espero duguna da Gobernuarekin batzar kronograma bat adostea.

[Ikus ondoko koadroa]

Kopuru eskandalagarria da benetan: kontratazio zuzeneko langileak (lan baldintza duinagoetan cateringekoak baino), bertako produktuak, bertako sukaldetan prestatuak, Jauralaritzaren laguntzarik jaso gabe... eta 0,35 euroko aldea bakarrik? Horrek esan nahi du, edo Eusko Jauralaritzak otorduko 0,35 euro baino gutxiago jartzen dituela (zuzenean galdetu diogu beste hainbat galderekin batera, baina ez digute erantzun), edo catering sistema garestiagoa dela, nabarmen. Kalitateaz ez dugu hitz ere egingo.

Urtean zehar dirua ateratzeko hainbat ekimen egiten dituzte: bazkari berezia, jaia, elikadura ekologikoaren inguruko proiektu bat ere aurkeztua dute udalean... Jantokiari eustea eta proiektua hobetzea da helburua, langileen soldata igotzea, tartean.

Nekazariak jantokirako ekoizten

Aritz Maiora nekazariak kontatu du nola hasi diren baserritarrak antolatzen, jantokiaren beharrianak urte osoan ase ahal izateko: “Adibidez, negu honetako arazoa izan da porrua bizkor amaitu zela. Eta orain uhazak falta dira”. Eve Ameiz nekazariaren hitzetan, “beste arazo bat da eskolak opor luzeak

dituela, eta juxtu uda dela guk uzta gehien jasotzen dugun garaia”. Gai horiei denon artean irtenbidea bilatzea da helburua, Etxarte gurasoak azaldu duenez: “Sortu da herriko ekoizleekin batera lan egiteko modu bat. Begiratzeko zein produktu fresko erabiltzen diren jantokian eta zenbat, ea posible den bertakoek kopuru hori ekoiztea... Beti erabili dugu bertako produktua, baina orain antolakuntza hobetu dugu”.

Jantokian bertako zer produktu erabili aukeratzekoan, prezioa da baldintza handietako bat, Maiora nekazariak azaldu duenez: “Badaude produktu batzuk, esaterako indaba, dezente erabiltzen dena jantokian, eta prezioan alde handia dago bertakoaren eta kanpokoaren artean: 3-4 euroan lortzen dute kanpokoak, eta baserritarrak 12an saltzen du. Pentsatzen ari gara zelan egin alde hori murrizteko, agian jantokiak garundu barik hartzea babarruna...”.

Nekazariarentzat jantokirako ekoiztea garrantzitsua dela azaldu du Alberto Eskobalek: “Badakizulako irabazi finko bat emango dizula. Baldin badakizu urtero 400 kilo babarrun salduko dituzula, adibidez, horretara jartzen zara, ez duzu ez gehiago ez

gutxiago egin behar". Pauso pauso hurrengo joan nahi dutela gaineratu du: "Produktu ekologikoak, menu finduagoak, oraindik erosten ez diren bertoko produktu batzuk erostea... Hori da filosofia".

Jantokia eta eskola, dena da bat

Undagoitia zuzendariari barru-barrutik atera zaio: "Ez ditugu bereizten jantokiko momentuak eta gelakoak. Zentroarentzako, dena da bat. Beti daukagu jangelan gertatu denaren berri, bai diziplina arazoak, bai gaixotasunak... Horrela ulertu dugu beti. Autogestioarekin oraindik gehiago kontzientziatu gara, baina heziketaz beti izan da bat".

Hau ez da txantxetako datua, jantokian geratzen diren umeek, denboraren %35,7 eta %43,7 artean ematen baitute jolasordu eta bazkalorduan. Aldi hauek pisu handia dute ikasleen sozializazioan, haurren arteko interakzio gehien orduan ematen baita, onerako zein txarrerako. Bizikidetzaz arazo gehien ematen den garaia da. Horregatik da garrantzitsua jantokia eskola proiektuaren zati gisa lantzea.

Bestalde, elikaduran hezteko ere baliatzen da jantokia, Undagoitiak azaldu duenez: "Eskolan gaia lantzen da, esaterako iaz umeak joan ziren Jose Antonioren soroa ikusten, eta dendatara goaz... Bertan ere badugu negutegi bat. Bertan egindako tomate, azelga eta letxugak harro jaten dituzte".

EHIGEn proposamena

Jantokietako zerbitzuak hobetzeko proposamena prest du EHIGek, eta Gobernuarekin berau lantzea da asmoa. Hona planteatzen diren hainbat puntu:

- ✓ Jantokiari duen balio hezitzailea aitortzea. Ikastetxearen planean txertatzea, eta batez ere elkarbizitza planarekin lotura izatea.
- ✓ Ikastetxeek autonomia izatea: erabakitzeko bertako sukaldean prestatu nahi duten janaria edo cateringa erabili. Bigarren kasuan, catering etxea aukeratu ahal izatea. Eskatzen duten ikastetxeei sukaldea jartzea.
- ✓ Cateringek ere kalitatezko lehengaiak erabiltzea: garaian garaikoak eta bertakoak.
- ✓ Langileak: euren funtzioak definitu (ez dira begirale soilak), eta lanaldia 30 minutuz luzatu, irakasleekin eta gurasoekin harremana izateko. Formazio ikastaroak jasotzea larrialdiez, elikaduraz, elkarbizitzaz... Begiraleko haur ratioa errebitsatzea.
- ✓ Catering eta begiraleen kontratazioa bereiztea. Begiraleak zuzenean kontratatuz, ikastetxearen heziketa ildoak jarrai ditzaten, eskolako programari jarraipena emanaz.

Autogestioa jangelan

"Posible da hau beste eskoletara zabaltzea"

Alizia Etxarte konbentzitutako dago jantokiari eutsiko diotela, eta hobetzen jarraituko dutela. Baina aldarrikatu du administrazioak bertako sukaldea duten jantokiak onartu egin behar dituela, eta eredu hau bultzatu behar duela: "Hau eraman daiteke jangela guztietara eta errebindikatu behar dugu janaria bertan prestatzea. Eskola guztiek sukaldea izatea. Eta bertako produktuak erabiltzea. Bideragarria da, bideragarria. Enpresek eroaten daben dirutza itzela da, eta dirutza horregaz beste sistema hauek jarri daitezke".

Ekonomia ereduak jokoan

Larrabetzuko seirek argi dute euren jantokia azken katebegia dela, eta katearen muturra beste nonbait dagoela: milaka umeri jaten ematen dieten jantokiak bertako produktuz hornituko balira, eta berdin egingo balute zahar-etxeek, eri-etxeek... bestelakoa litzateke bertako ekoizle eta denda txikien egoera. Bertako sukaldeak edo cateringak bultzatzea erabaki politikoa da, garrantzi handikoa. Eta ez interes ekonomikoetatik libre dagoena, kontuan hartzen badugu EAEko eskola denetara hamar catering bakarrik iristen direla, eta Gipuzkoa osora, bakarra. Cateringa ere ez du eskolak aukeratzen, Jaurilaritzak asignatzen dio bakoitzari dagokiona. Eta araudiaren bidez, makroenpresak bultzatzen dira, ia monopoliora iritsiz. ■



ANDRA MARI
restorante

Elexalde Auzoa, 22 • Galdakao, Bizkaia
Tel.: 94 456 00 05 • www.andra-mari.com



«Gure lana boterea biluztea da»

Arrazoi zuen Omar Nabarrok. Dena da haragia.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Zuk esana: "Beti sentitu dut pertsona desberdinak izateko beharra".

Txiki-txikitatik. Ez naiz alferrik aita andaluz eta ama euskalduneko mundakarra. 11-12 urterekin lanbide heziketa ikastera Bilboko barnetegi batera bidali nindutenean lehenengoz jo ninduen arrotz izatearen sentsazioak. Soldaduskan euskaldunek Jimenez esaten zidaten, eta erdaldunek, Ormaetxea. Pertsona desberdinak izateko behar hori beti egon da nigan, eta literaturarako saltoa eman nuen ere ezizen baten premia sentitu nuen, aurrez beste giro batzuetan ezaguna nintzelako gehienbat. Literaturaren barruko jolas hori oso aberasgarria da, baina gurean eta gure inguruko literaturetan merkatuak agintzen du eta argitaletxeak ez daude jolaserako. Omar Nabarroekin, hala ere, egin dut neure bidea, eta azken liburuan, "hil da Omar Nabarro" idaztera iritsi naiz, nahigabe neure heriotza aurreikusteko premia sentitzen dudalako, seguru aski.

Ofizio desberdinek lagundu dizute pertsona desberdinak izaten?

Ni bakarra naiz, baina kontraesan askorekin. Halakoak dira kontraesanak, psikologo edo psikiatrak nortasun anitza diagnostikatuko lidakeela. Beti sentitu izan dut mundakarra izateko grina. Bertan bizi, anaiarekin itsasora joan... Bilbon bizi izan naizenean, beste premia batzuei erantzun diet, gauez bizi izan naiz, bohemio, gau-txori. Ezkonduta ere egon naiz, eta inoiz zorion hura hutsetzen dut. Aldi berean, guztiz librea eta inorekiko loturarik gabea izan nahi nuke. Nortasun aniztasun horrek lotura handia dauka izan ditudan lanekin. Euskara irakasleoi, esaterako, euskaltegietan, filologo, pedagogo, lagun, antzezle, aholkulari eta inoiz baita maitale izateko ere eskatu digute. Irakaskuntza profesional bezain militante horrek asko dauka antzerkitik, asko mozorrotik. Are gehiago, bazen ikasle bat euskaltegira etortzeko *Egin* erosten

zuena, eta etortzen ez zenean *El Correo*. AEK-n, ikasle guztiak ziren jatorrak, ezkertiarak, aurrerakoiak, baina gero... Alde guztietako mozorro dantzen mundua zen hura. 1990-91n, *Babel* telebista saioa egin genuenean ere bufoiarena egitea erabaki nuen eta hara non gaur bufoien saioak dauden modan. Esan nahi dudana da nortasun edo izaera anitz horiek oso eraginkorrak izan direla niretzat, aspalditik baitakit pertsonok "ni" edo ego asko dauzkagula gudan. Gizarteak bat bakarra eta koherentea izateko eskatzen digu, baina "ni" bakarra izatearen zentzuan, izugarri kostatzen zait koherentea izatea.

Zer balorazio egiten duzu literaturatik eta literaturarako bizitzeko egindako apustuaz?

Orain, 56 urterekin, memento latza bizi dut, bizitzan lehenengoz etorkizun hurbilak kezkatzen binau, eta berandu da ezer aldatzeko. Literaturatik eta literaturaren inguruko guztitik bizitzeko apustua egin nuen, eta horren barruan sartzen zen anaiarekin itsasoan ibiltzea Urdaibai erakusten. Azken hori pikutara joan zen baina oso urte zoriontsuak izan ziren. Idazteko erabiltzen nuen materiala hemendik sortzen zen, nire sorterritik, nire Euskal Herritik, eta munduratzeko urratsean beste era batera erabili nezakeen. Orain, beharbada, literatura eta beste lan batzuk uztartuz bizitzeko nire zikloa bukatu da, baina oso pozik nago. Apustua egin nuen eta urteetan egon naiz gerrilla eta utopia eder horretan. Horrek berez merezi du, eta gerora ere merezi izango duela uste dut.

Utopia eder hori ustelduta dagoela, kiratsa dariola, aldarrikatu berri duzu.

Nortasun agiria

1953ko azaroaren 8an jaio zen Mundakan Edorta Jimenez Ormaetxea. Marinela, irakasle, gidolari, itzultzaile eta kazetari lanetan ibili, literaturatik eta literaturarako bizi da egun. *Haragizko Amoreak* eta *Stock13* dira idazle oparo honen azken lanak.

A man with grey hair and a goatee, wearing a blue zip-up sweater, stands with his arms crossed on a wooden boat. The boat has blue and white striped cushions and green ropes. In the background, there is a rocky coastline with a small concrete structure and a body of water under a clear sky.

• P E R T S O N A I A •
Edorta
Jimenez

Munduko beste literaturak ere hala daude, gehienak interesen talkengatik, baina gureari buruz ñabardura batzuk zor ditut. Kontua da idazleok idazten dugula, baina hutsaren hurrengoak garela sistema deritzonaren barruan. Horri idazleen proiektzio desberdinak gehitu behar zaizkio, eta batez ere, nor den proiektatzailea. Zertarako da literatura bera? Literatura apaingarria eta politikoki zuzena izan behar bada, kritikariak, antologoak eta sari-emaleen gisako bitartekariak jartzen dira sistema interesen arabera bideratzeko. Azken 30 urteak errepasatzen baditugu, oharretara gara euskal literaturaren proiektzioa ideologia jakin bateko esku gutxi batzuetan dagoela, eta ideologia horren arabera gertatzen direla bazterketa eta hautaketak. Zelan iritsi gara horra? Dramatikoa da euskararen etsai historiko batek, euskara folkloretzat nahi izan duen hedabideak, euskal literatura kudeatu nahi izatea bere kritika, artikulatu eta iritzien bidez, euskal literatura literaturaren hispanikoen barruan sartzeko helburu bakarrekin. Ni irakurleei mintzo natzaie, eta kritikoak izateko eskatzen diet, euren buruei beti argazkietan agertzen direnak nor diren galdetzeko, zer dakiten literaturaz, nork ordaintzen dituen, nork egin dezakeen karrera literario bat, euskal literatura ala literatura hispanikoetako beste bat ukan nahi duten... Euskaltzaindiak uste du Espainiako sari nazionalak nazionalak direla? Nazionalizat badauzka zertara dator “euskal” hori? Zergatik parte hartzen du Espainiako sari nazionala? Hori guztia nik esan behar dut jendearekin haserretuko naizela jakinda?

“Handitzen zeranean ikusiko duzu isilik ego-teak zenbat balio dun” kantatzen zuen Letek.

Niretzako gogorrena da, hainbeste urtean hori ikusi, eta zelan egon naizen isilik. Hedabide gehienak erdaldunak dira eta euskal idazleok erdaraz aipatzen gaituzte. Hori tragedia bat da. Euskal literatura eta euskal kultura erabat kolonizatuak daude, inperioaren hizkuntzan egiten baita noizean behin kolonizatuok egiten ditugun artelanei buruz berba. Beti izan dut errebelia hori, boterearekiko mesfidantza hori, eta nekatu naiz itxaroteaz, nekatu naiz injustiziaz, nekatu naiz zerrenda beltzez. Katuak legetxe zazpi bizialdi banitu bat eman go nuke doktore-tesiak egiten eta Euskal Herriko medio espainol eta espainol-zaleetan euskal literatura nola agertu den azaltzen. Lupaz aztertuko nuke X izen batzuk zergatik ez diren sekula agertzen, eta Z izena nahi bese-tetan ageri den, eta lepoa jarriko nuke ideologiarekin zerikusia daukala. Orain ihesbide bat dago, ostera. Inork ez du hizkuntzari buruz hitz egin nahi. Hain gaude kolonizatuta erdal-dunek esaten dutenean heziketa sistema honekin gaztelania hil-zorian dagoela, barre egin


eta “ez izan lotsabakoak!” erantzun beharrean euren terminoetan eztabaidatzen hasten gara. Baina nork sinesten du gaztelania galtzeko arriskuan dagoela? Zelan onartzen dugu diskurtso hori? Zelan abertzalea den egunkariak sailen izenburuak baizik ez izatea euskaraz? Kolonizatzailearen sisteman bizi gara, kolonizatzailearen terminoetan pentsatzen dugu, eta garatzen dugun apurra kolonizatzailearen eskemetan garatzen dugu.

Uste duzu errebelia eta ideologia ordainarazi dizkizutela?

Argi eta garbi. Behin pertsona inportante batek esan zidan nagoen lekuen nagoen artean ez nuela salduko. Kontua da ni ez nagoela beraiek uste duten lekuan. Ez nago zehatz-mehatz ideia politiko baten barruan, eremu baten barruan agian bai. Nahiko nuke Euskal Herri bakarra izatea, eta batez ere, balizko aberri hori, utopia hori, ezkertiarra izatea. Ez dut sozial-demokraziarik nahi ostera, lehengo planteamendu marxista leninistatik anarkia eta komunismo libertarioa emanago bainago orain. Baina horrek ere ez dit balio. Historian heterodoxoak izan diren guztien uberan sentitzen naiz, eta ororen gainetik atea naiz. Atea naiz uste baitut erlijioa, kristautasuna kasu honetan, tragedia handia izan dela gizateriarentzat. Sortzezko bekatu eta erru bat dagoela sinestea humanitatearen kontrako krimena da, krimen psikologikoa, krimen animikoa. Ez dago eskubiderik kondairetan oinarriturik tortura psikologikoa eragin eta erruaren erna-muina gizakiongan hain sakon txertatzeko. Niretzat eliza oso kaltegarria da, baina harrigarria bezain ulergarria zait zelan egiten den mundu horren defentsa. Zergatik bihurtu da Arantzazu kulturgune? Arantzazuk parke tematikoa izan behar luke, Azurmendiren, Gandiagaren edo Salvatore Mitxelenaren esanak gogoratu, baserriarren unibertsitatearen funtzionamendua eta nondik norakoak azaldu, eta etorriko diren belaunaldiak euskal idazleetan hainbeste apaiz, moja eta fraide zergatik egon diren jakin dezaten. Artzaintzaren, arrantzaren edo sorginen interpretazio zentroak daude, baina ez euskal kulturaren XX. mendeko azken hamarkadetakola belaunaldi esanguratsu pare batena.

Fokupean egon nahi duen idazleak liburuak idazteaz gain molde jakin bateko pertsonaia idazteaz arduratu behar duela esaten ari zara?

Euskalduna hain dago kolonizatuta, non kanpora zabaltzen diren idazleak Espainiako sari nazionala irabazi dutenak diren. Gainera, ez dute saldu saria irabazi aurretik, saria jaso ostean baizik. Horrek zer esan nahi duen? Lehen lerroan egotea Madrilek ematen duela. Ni azken urteetan pertsonaia izaten ari naiz,



baina ez gehiago saltzeko. Munduarekin homologatu nahi badugu, telebistan zaborra behar dugu eta badaukagu, baina ez nahikoa. Gure aitona-amon eta lehengusu-lehengusinek *La Noria* eta halakoak ikusten dituzte eta hortxe dago gure engainua. Euskaraz bizi garenok, sabinismo eta aranismoaren garaian bizi gara oraindik. Kaka horretatik salbu daukagu euskara, baina ez euskaldunak kaka jatetik. Zer da kontua, gure purutasunak ez digula zaborra euskaraz irensten uzten ala bi garela bakar baten barruan? Pertsonaia bihurtzen ez bagara, eta ganorazko ezer mamitsurik esaten ez badugu, irakurleak ez du ezer espero, dena da *déjà-vu*, ez dago aldarririk, eta astelehenetako futbol partiden titularrak bezain prebisi-bleak izango gara. Pertsonaiak onartzeko prest ez bagaude, ez dezagun aldarrikatu ez telebista, ez irati, ez ezer euskaraz. Gure hedabideak ekonomia bezalako gai serioez baizik ez dira mintzatuko, eta hor ere ekonomialariek ez dute iritzirik emango, Vatikanoko begiralearen antzeko zerbeit izango dira.

Literatura erotikoa euskaraz idaztea homologazioaren parte da?

Aranismoaren aurka, beti amestu dudana antidotoa da. Esaterako, *Stock13* gizarte zerbitzu bat da, asmo horrekin egin ez badut ere. Azal horrek begia mintzea dakar eta edozein hizkuntzak edo kulturak aurrera egingo badu begi minduak behar ditu. Zauriak behar ditugu begietan, ostean hobeto ikusteko, libreago izateko. Idazle zein irakurleok polizia bat dugu geure baitan, eta deseroso sentitu direnak, polizia horrekin egin behar dute borroka. Idazleek motibo asko izan ditzakete idazteko. Egon daitezke barre eragiteko, laztan egiteko, jendeari anestesia emateko, laguntzeko... Baina nik nire baitan boterearekiko kritiko izan nahi dut, eta botereari min eman diozula konprobatzeko, botereak mendekua hartu behar du,

OFF THE RECORD

Burbuila kosmikoa

Haize fin eta hotza dabil Mundakan. Elkarrizketa non egingo genuen galdetu diogu Edortari. "Barruan ala kanpoan?" itaundu digu berak, eta guk ezer esan aurretik "zatozte nire burbuila kosmikora" bota. Pare bat potin zahar inguruan, itsasoa parean, kaioak bueltaka, eta gu haitzetan eseri gara. Burbuilan ez dabil haizerik.

orduan jakingo duzu min hartu duela. Niretzat ez du merezi idazle izatea apaizek, mojek, militarrek edo poliziek madarikatuko duten eta erre nahi luketen liburua idazteko ez bada. Nik hori lortu dut, eta pozik nago, baina min handiago eman nahi nuke. Gutxiarekin bizi naiz, gutxiagorekin biziko nintzateke, eta beste batzuen gisan gizarte laguntza jasoko banu, are gauza gogorragoak esan eta idatziko nituzke.

Urdaibain eraiki nahi duten Guggenheim berriarekin ez zaizu gairik faltako.

Inoiz baino argiago erakutsi du botereak Urdaibaiko biztanleok erreserbako indioak garela, hutsaren hurrena. Jose Luis Bilbaoren erabakia izan da. Kontsultatu du Guggenheim Fundazioarekin, adituekin bildu aurretik zabaldu du egin egingo zela, EAJko militantei eta Bizkaiko merkatariei azaldu die asmoa, eta guri ez digu oraindik inork ezer esan. Hau diktadura da. Lur hauek ezagutzen dituen edozeinek daki hautatu duten kokapena sinbolikoki zer inportantea den, eta museoa eraikiz gero Sabino Aranaren historia guztia azpian hartuko dutela. Bai, Sabino Aranaren biografia guztia Sukarrietan kontatu ahal da, museoa eraiki nahi duten lekuan. Boterea biluztu egin da, hemen Urdaibain, espekulazio gose hutsagatik. Nire aberkide eta erkideen benetako izaera neoliberal eta diktatoriala ikusi dut. Haluzinatuta nago. Agian indioa naizelako da, aitaren aldetik mestizoa, eta erreserba honetan hutsaren hurrengo. Ez dakigu nor den nor, baina hemen kasaka azulek eta kasaka gorriek agintzen dute. Gu indio puta eta zoritxarreko batzuk baino ez gara, eta bakero pelikuletan lege, indio horietako batzuk dabilza kasaka gorri eta azulen zaldien gidari. Ez dakit orain arte agertu naizena baino biluziago agertu nahi dudana, baina geratzen dira esan eta idaztekoak. Norbera biluzteak besteak biluztera behartzen ditu, eta gure lana boterea biluztea da. ■



Euskal Herri biak egundaino bereizi zituen gerra

Gerla Handia, muga sakona (Utriusque Vasconiae) liburuan, Lehen Mundu Gerra aztertu du Eneko Bidegainek *Eskualduna* eta *Euzkadi* aldizkarien argitan.

MIEL A. ELUSTONDO

“BIBA ESKUAL-HERRIA!

Eskual-herrian bezala joan balinbada gizon-altchatzea bertzetan, eztugu zeren, behin eta behin, Frantziatz etsy, ez eta ere lotsa.

Chuberon, Bachenabarren, Lapurdin, orotan oldar bera.

Larumbat arratsalde erditan, atabalak eta elizetako ezkilak entzutearekin, eta jandarmak banazka tarrapatan bazter guzietarat hel ahala hel, afichen eman-arazterat herri guzietan, laztura batek hartu ditu oro. –Zer da hori? Gerla othe? Etzen gerla oraino, baina hartarako azken urhatsa. Urhats bat gaitza, Frantziako guziak egin bezalako deia: ‘*Ordre de mobilisation générale*’”.

Horixe dugu –17. orrialdeko irudian ikus dezakezunez– 1914ko agorrrilaren 7ko *Eskualduna* aldizkariaren azalak dakarrena. Buruan, “Gerla haste – Biba Frantzia!”, orrialdeak dituen bost zutabeetarik hiru hartuak ditu izenburu nagusiak. Gerrara dei eginenez ari da aldizkaria: “Hiri eta herri,

handi ala ttipi, guzietan khar bera da. Frantzia guzia chutik, zuzen izpirik gabe, guk deus galdatzen, ez eta deus hobenik egiten ez diogun etsai aspaldiko tzarrari erakusteko merezi duen muthurrekoa”. “Gizon altchatzeak” epigrafepean, berriz, gerraren atarian aldizkariak zabaldu zuen sugarraren berri dugu: “Hau da berriz mobilizazione gaitza! Egundaino Frantzian ez da ikusi holakorik. Hainbertze gizon halako ordre ederrean, hoin fite, oro utzirik, denak soldado. Gerla behar badugu, doala gerla. Biba Frantzia!”.

14ko Gerran, Iparraldean frantses nazionalismoa zabaldu zuen *Eskualduna*-k; Hegoaldean, *Euzkadi*-k euskal abertzaletasunaren ikuspegitik landu zuen guda.

‘Gu frantsesak gara’

Hain justu, *Eskualduna* astekariak Lehen Mundu Gerra garaian erakutsitako jarrera hori du xeheki aztertu Eneko Bidegain kazetari eta idazleak argitara berri duen liburuan: *Gerla Handia, muga sakona. Lehen Gerla Mundialaren (1914-1918) hastapenak* Eskualduna eta Euzkadi aldizkarietan. Bada hamar urte Bidegainek *Eskualduna* astekariaren edukien



Euskaldunentzat zen ordaina

“Sara, Laburdi’ko osalari Elizagarai pantzetarren gudamutil dabillanak idatzi dau, lubagi edo trintxeran gau batian geldi egozarian, Iriarte deritxon abots zoli ederrdun euzkotar gudamutilla asi zala gure abestijak erabilten, eta unerik-unera, lubagijan aurkitxen ziran beste euzkeldunak laguntzen eutsoela danak batera. Berez ederrak ixanik abestijak, gabezko ixillian eta eztarri zolijak abesturik, bijotz-bijotzeraño sartzen dira.

Pantzetarren lubagi onetatik 50 neurgin (metro) arantzago eguan beste lubagi bat doistarrena. Onek entzuten eguzan ixil-ixilik, eta euzkeldunak amaitu ebenian abestijaldia, doistarrak txalo andijak jo eutsiezan. Eta ordañez, Marseillaise abestu eben eurak, len abestu ebenak pantzetarrak ixan ziralakuan. Orduban, pantzetarrak jo ebezan txaluak. Euzkeldunentzako zan ordaña eurak arrapatu eben”.

(*Euzkadi*, “Doistarrak gure abestijei txaloka”; 1915eko urtarrilaren 4ko alean).

azterketa estilistikoa egin duena. Lan horren kariatara hainbat zenbaki irakurri zituen, Mundu Gerra garaikoak ez guti. “Ordutik neukan buruan, formaz harago, astekari haren edukia eta ildo editoriala aztertzea. Erran nahi dut, 14ko Gerla zinez interesgarria iruditu zitzaidan. Batetik, gerla hura ez delako anitz landua izan Euskal Herriaren ikuspegitik, eta are gutiago *Eskualduna* astekariaren prismatik; bestetik, berriz, gertakari hura giltzarri izan zelako gure Herriaren historian: hain zuzen, Ipar Euskal Herrian orduan erroto ziren frantses nazioarenganako atxikimendua, frantses izatearen sentimendua. Erraten da 14ko Gerla izan zela Frantziaren ‘nazio eraikuntzaren’ azken urratsa. Ipar Euskal Herriko euskaldunek Frantziaren alde egin zuten gerla, Frantziaren alde hil ziren. Eta *Eskualduna* astekariak, euskaraz izanik ere, Frantziaren aldeko mezu hori zabaldu zuen, erran nahi baita, gu frantsesak gara”.

Ipar Euskal Herriko astekari zaharrena zen *Eskualduna*, gaurko *Herria* astekariaren arbasoa. Milaka irakurle zituen eta, honen bestez, eragin handia zuen. Apaizak ziren

Etorkiz bat izanik ere

“Nere burua nor nahi bezen eskualdun daukatararik, ene hitzean nago: berech izaiteko eztela aski erraitea: ‘Espainia bat da, Eskual herria bertze bat’. Baina hola zaiotenek hola erran bezate berentzat. Guk eskualdun frantsesek eztugu Frantziatik berechtea galdatzen: are gutiago erraiten ja bi direla Frantzia eta gure Eskual-herri hau?

Zer onik ginuke ere hortarik iguritzeke? Erresuma ttipiak handiek ahamen batez janak ez dituguia ikusten? Horra zer zaion gerthatu azkenik hor Belgikari, handiago izan balitz gerthatu ez zitzaiona.

Handitasunak eztu zuzena egiten, ba ordean, beharrez, laguntzen, azkartzen.

Ttipiturik, ederrak ginitazke, bi auzo handi, bata bertzea bezen goson erdian, bietarik gu bereziak!

Otsoen hazkurri dire bildotsak;... chitoak miruen.

[...] Noizpeiko aspaldiko ethorkiz bat izanik ere, demborak berezi bagitu erresumaz: bi zathitan ezarri bagitu bi populu auzori eratchikiak, bien ararteko edo lokarri izaitea gu hiruen onetan ez litakea?

Gure ustez ba, elgarrekin bizi gaichtoan bizitzea baino hobe.

Ezkontzaz berechten zira, lehen auzo geldituz, burhaso eta haurridetarik,... ahultzen direa sor-etcchearekila-ko lokarriak, ala luzatuz, hedatuz, azkartzen?


– Ezta bardin.

– Ez osoki: baina hein batez, adichkidea, eza?”.

(*Eskualduna*, “Alemanaren adiskidantza”; 1914ko urriaren 23ko alean).

idazle, eta uste izatekoa da aldizkarian agerit den iritzi purrustada bera barreiatuko zutela elizan, pulpitutik. “Ipar Euskal Herriko orduko gizartearen zati garrantzitsu baten isla interesgarria da *Eskualduna*”, Bidegainen hitzetan.

Dena den, *Eskualduna* astekaria aztertutik ere, Hego Euskal Herrian kaleratzen zen beste aldizkari bat ere jorratu du Bidegainek, kontrapuntu gisa, eta Bidasoaren bi aldeetan



ziren ikuspegi ezberdinak –kontrajarriak, zenbaitetan– erakutsi nahiz. “Hego Euskal Herrian gerla hura nola aipatzen zen ikusi nahi nuen, eta *Euzkadi* egunkaria zen gai hartaz gehien idatzi zuen kazeta. Laster ikusi nuen guziz beste mezu bat zabaltzen zuela. Interesgarria iruditu zitzaidan, kontrastea egin ahal izateko”.

‘Gure euzkeldun anai gaxoak’

Gerra lehertu berritan, *Euzkadi* egunkariak, 1914ko agorrilaren 11ko artikulu batean, espainiar gobernuaren neutraltasuna txalotzen du, ez duelako Frantziarekin ez Ingalaterrarekin konpromisorik, ez duelako gerrara

Eneko Bidegainek idatzitako liburuaren azala eta *Eskualduna* aldizkariaren azala 1914ko agorrilaren 7an, gerrara dei eginez.

behartuko duten lokarririk. “*Y repetimos la razón única de nuestra actitud. Queremos paz con todos porque las presentes guerras son ante todo monstruosos atentados contra la justicia*”. Alegia, *Eskualduna* herio suhar bultzatzen zituen Zuberoa, Nafarroa Beherea eta Lapurdi gerrara. *Euzkadi* bazuen kezka, bakea nahi zuen, gerraren gainetik. Gerrak eztanda egin zuelarik, Iparraldeko anaien geroak arranguratzeko du. “Laburdi”ko uri iri ederr aberatsak zertaratu dituen gudu otsak! Eta orobat Be-Naparra ta Zuberoa’koak ildokiak dirudite. Gaztedirik gabe gelditu dire; anei aneika artarik gabe daude umeak eta gautik goizerrat alarguntz negarra dariotela dabilte ezin zen-



Urki

TXAKOLINA

Askizu Auzoa, Getaria

Tel.: 943 14 00 49 • www.urkitxakolina.com



Bi argitalpen, bi ikuspegi

Gerra garai hartan bazen aldizkari eta egunkari franko. Gaztelaniaz eta frantsesez idatziak ziren gehienak, baina baziren euskara hutsezkoak –Ipar Euskal Herriko *Eskualduna*, kasu–, eta elebidunak, nola izan zen *Euzkadi* egunkaria Hegoaldean.

Euskarazko *Eskualdunari* dagokionez, Louis Etcheverry zuriak –hots, giristinoak– sortu zuen 1887an, eta ez debaldetan: urtebete lehenago Martian Henri Berdoly gorriak –laiko eta errepublikaren aldekoak– abiatu zuen *Le Reveil Basque* aldizkariari aitziz egiteko asmotan zen Donazaharreko Etcheverry politikari eskuina *Eskualduna* bidez. 1891n Manex Hiriart-Urruty genuen *Eskualdunako* zuzendari, “fedearen eta

libertatearen etsaiak gudukatzeko nahiarekin”, eta idazle nagusietarik. Baionako apezpikuen gidaritzapean egon zen aldizkaria, eta Iparraldeko euskaldunen bilgune ideologikoa izan zen, Javier Diaz Noci ikertzailearen arabera.

Hegoaldeko *Euzkadi* egunkariari denaz bezainbatean, Bilbon sortu zen 1913an, Euzko Alderdi Jeltzaleari estu loturik. Egunkari politikoa eta informaziozkoa zen, zati bat euskaraz eta bestea, handiagoa, gaztelaniaz zuena. Mundu Gerra sasoiaren Evaristo Bustinza *Kirikiño* zen euskarazko atalaren arduradun, eta haren eskukoak dira *Euzkadik* lehen orrialdean ekarri ohi zituen euskarazko artikulu-editorialak.

batu ala emazte. Gogorrik gogorrrena ta miñik miñena! Aunitz eta aunitz erri apezik gabe gelditu dire: ok ere orok gudara; berrogei ta bortz urte bete ez dituzten guztiek. Jainko ona! Urrikalztea gure euzkeldun anai gaxo otaz.”

Euskaldun eta euskaltzaleak ziren bi agerakariak ere. Bat egiten zuten horretan. Guztia-ekin ere, bazuten ezberdintasunik, Bidegainek dioenez: “Ipar Euskal Herria Frantziari begira zegoen. Frantzia zen haren ‘aberri handia’. Bere burua frantses zeukan”. Bestetik zen egoera Hego Euskal Herrian. “Abertzaletasuna eta independentzi gogoa agertuak ziren ordurako. Hego Euskal Herriko zati handi bat, karlistak bereziki, alemanen aldekoak ziren. *Euzkadi* egunkariak, aldiz, jeltzaleak, ez ziren alemanen aldekoak, maiz pentsatu izan denaren kontra. Ez zuen gerlan sartu nahi, are gutxiago alemanen aldean, horrek Ipar Euskal Herriko ‘anaien aurka’ borrokatzea eraginen zuelako. Gerlan hiltzen zen euskaldunentzat, *Eskualdunak* idazten zuen ‘beren herriaren alde hil’ zirela. *Euzkadik*, aldiz, idazten zuen ‘atzerriko herri baten alde’ hil zirela. Hots, Ipar Euskal Herrian frantses nazionalismoa erroto zen, Hegoaldean euskal abertzaletasuna garatzen ari zen garaian”.

Euskal Herri biak etenik

Euskal Herriaren eki-mendebaleko bi aldizkarietan ageri den ikusmolde etena da azpimarragarri. Ageriko denez, abertzaletasunak hagitzen erro sakonagoak ditu batean bestean baino. Eneko Bidegainek, kontu hori aspaldikoa dela azaldu nahi zuen. “Ustedut hori garbi gelditu dela egin dudan ikerlanean. Ez nekien ziur, ordea, Hego Euskal

Herriko abertzaleek alemanak hain argiki kondenatuko zituztela. Uste nuen jarrera germanofiloagoa aurkituko nuela, eta ez da hala izan. *Eskualdunari* dagokionez, bestalde, espero nuen, bai, jarrera frantses-zalea. Baina ñabardurak badira. Nik uste dudanez, oroz gainetik pragmatismoa dago Frantziaren parte izan nahi horren gibelean, erran nahi baita, estatu handi baten parte izateak sorrarazten dion segurtasuna ageri da hor”.

Bidegainek egin digun lanean irakurtzen denez, “Ipar Euskal Herrian, *Eskualduna* astekariak frantses nazionalismoaren sentimendua zabaltzen zuen; eta, alderantziz, Hego Euskal Herrian, *Euzkadi* egunkariak, euskal

abertzaletasunaren ikuspegitik lantzen zuen gerla mundialaren aipamena”. Hori baino gehiago ere esan digu, ordea, Bidegainek: “*Eskualdunak* frantses nazioaren batasuna eraikitzen parte hartu zuen, eta *Euzkadik* zazpi Euskal Herriak batera ikusi nahi zituen. Baina gauza guztiak bezala, dena korapilatsuagoa da. Nortasuna, etxea, eliza/estatu gatazka, kristautasuna eta beste hainbat parametroren arabera

aztertu behar da gaia, sakonago”. Horretan da Bidegain, hiruzpalau urte iraungo duen doktorego tesia egiten. Ziur, ez garelako jabetzen 14ko Gerla Handiak gure Herrian izan zuten eraginaz. “XX. mendeko gertaeren artean, gutxi aipatzen da 14ko Gerla. Anitzez gehiago ezagutzen eta aipatzen da 36ko Gerla, nola ez, eta Bigarren Mundu Gerra. Baina, funtsean, Ipar Euskal Herria ulertzeko, 14ko Gerla Handia ulertu behar da, eta orain arte jarri ez zaion arreta merezi du. Mendeurrenaren dator lau urte barne, eta Euskal Herrian modu berezian gogora ekartzea komeni dela iruditzen zait”. ■

“Euzkadik ez zuen gerlan sartu nahi, are gutxiago alemanen aldean, horrek Ipar Euskal Herriko ‘anaien aurka’ borrokatzea eraginen zuelako”

ENEKO BIDEGAIN



Eskuturrekoa

Power balance pultseraren aurrekaria izan zitekeena orain dela urte mordoxka ezagutu nuen. Zilar koloreko eskuturrekoa zen, eskutur osoa harrapatzen ez zuena eta pultseraren mutur bakoitzean bolatxo bana zuelarik. Batzuek, aipatu bolatxoak eskuturraren gainaldean jartzen zituzten eta besteek, azpialdean. Batera edo bestera izan, gaixotasun jakin batzuen edo besteren kontrako tramankulua omen zen. Hain da denbora asko, ezen ez naizela gogoratzen era batera edo bestera erabilita zertarako zen.

Osaba Ramoni ikusi nion lehen aldiz. Osaba Ramon Kanariar irla inguruetatik ibiltzen zen marinela izaki, ohitura zuen inguru haietako merkatuetatik berrikuntzak ekartzekoa. Berak ekarrita izan nuen nire lehenengo idazmakina, adibidez.

Bada, behin, pultsera bitxi horiekin etorri zen. Eta familiarako hainbeste ekarri zituen. Baita nahi zuten lagun guztientzako ere. Etxean, amonak eta gainontzeko osabak guztiek hartu zioten bana: erreuma-
rentzako, giltzurrunentzako, buruko mina-
rentzako... nire aitak izan ezik. Nire aitak, pultsera hatz artean hartuta, barre egin zion. Tramankulutxo hark zer egitea espero ote zuen galdetuz. Zazpi itsasoetan ibilitako osabak, anaia-arrebetan zaharrena bera, baietz, kanpoko jendeak fede handia zuela tresnatxo harengan eta jartzeko gonbita egin zion. Ez zela ezer kostatzen eta anaia-arreba guztiek jarri zutela komentatuz. Nire aitak, ordea, ez zuen jarri, sineskeriatzat jota.

Osaba Ramonek lasterrera hartu zuen erretre-
ta, adinak halaxe eskatu-
ta. Eta lehorrean ezin geldirik egon. Iloba bati arrandegian lan askorekin zebilela entzutea nahikoa izan zuen, handik aurrera, ilobari laguntzen hasteko. Ondarroako bentan arraina



Ana Urkiza

Padrón

Rozas

erosten lagundu, Debara joan, kaxak hustu, arrandegia pres-
tatu eta garbiketetan jardun. Batzuetan, eguerdi aldera mokadua jan eta Debatik Ondarroara oinez bueltatu ere bai. Eskuan zerman burdi-
nazko xafla baino gogorragoa zirudien osaba Ramonek.

Behin edo behin kexatu zen gerri inguruan halako ziztada-
txo bat edo beste sumatzeaz.

Eta bi gauza aldatu zituen. Pultsera eskutur-
rean gorantz begira zuena behe-
rantz begira jarri, eta lanerako faja lodia jantzi. Gerriko harekin, lehen baino lana azkarrago eta seguruago egiten zuela esaten zuen.

Osabaren hitzetan, zirkulazioa hobet-
zeko zerabilen berak eskuturrekoa. Eta giltzurrunak garbitzeko. Sistema hori guz-
tia ondo izanez gero, “arazoak erdibitu egiten baitira”.

Egun batean, ordea, arrandegian kaxak leku batetik bestera aldatzen zebilela, konor-
tea galdu zuen. Anbulantzian, medikuaren-
gana zeramaten bitartean, gerrikoa laxatu zioten. Osaba Ramonek ez omen zuen hitzik egin. Baina bai eskuturrekoari heldu. Aorta pitzatuta zuen, itxuraz, eta lanean, moztu egin bide zitzaion. Ez zen ospitalera heldu.

Pultsera soinean zuela lurperatu genuen eta Athletic zale amorratua zenez, lore zuri-gorri hutsak jaso zituen familiak. Filmetan, hilkutxak AEBetako banderarekin estaltzen dituzten bezala, halaxe joan zen gure osaba Ramon ere, ohorez eta kolorez jantzita

ko. Bere sinesmenekiko koherentea izan zelako. Koherentzia hargatik maite izan genuelako eta errespetatzen genuelako. Ez zen kontua besteok sinesten genuen edo ez. Berak zer eta nola sines-
tu zuen baizik. Berak nola biziarazi zigun baino. Eta bide batez esanda: eskuturrekoa, gutxienekoa. ■

Pultsera soinean zuela lurperatu genuen eta Athletic zale amorratua zenez, lore zuri-gorri hutsak jaso zituen familiak. Filmetan, hilkutxak AEBetako banderarekin estaltzen dituzten bezala, halaxe joan zen gure osaba

Ramon ere, ohorez eta kolorez jantzita

Espainiera hautatzeko eskubidea

Duela urte pare bat Bruselak euskara aintzat hartuko zuela “saldu” zigutenean, ergelkeriatzat hartu nuen. Euskara ofiziala den etxeko zati honetan 2010ean Bilboko anbulategietako harreretan erdarara behartzen zaituztelarik, badira Brusela baino premia larriagoak. Baina ikuspegi kontua ere bada: euskaraz bizi gura dugula esaten denean, Euskal Herrian euskaraz bizitzeko eskubideaz dihardugu. Ondotxo dakigu euskara ez dela Europarako, kontinenteko gure txoko txikitik harago. Kanporako ingelesa behar da. Ingelesa, ez espainola edo frantsesa.

Nonbait horretaz guztiaz jabetu direlakoan, eredu ingelesa ekarri gura digute agintari autonomikoek. Erraz suma daiteke atzean herritarrek hautatutako euskarazko ereduak ahultzeko borondatea; artez euskararen aurka jotzea politikoki oso zuzena ez denez, “hizkuntza bakoitzak gutxienez ehuneko hogeita (%20) izan dezala” proposatu berri dute. Ingelesaren aitzakian espainiera indartzeko egitasmo lotsagabea da, ados, baina egon dagoen arazoari heltzen dio: ikasketak amaitutakoan ikasle elebidunak izatea (euskarari dagokionean, bistan da) porrota izan den gisan, nazioarteko hizkuntza nagusiaren ezagutza ere oso urrun dago



INIGO AZKONA

egun edozein europarrek beharko lukeenetik. Baina euskaltzaleok bi argudioak batzea (“euskalduntzea lortu ez eta, ingelesa sartu nahi dute?”) hankasartze larria da: beren kosmopolitismo hispanoa euskal arlotekeriaren ifrentzu gisa saldu digute urtetan, baina 2010ean ezin diegu horren merke eman. Mexikotik Buenos Aires-erako hizkuntza daukate, baina Hendaiatik iparrera galduta daude. Luzaz sinetsarazi digute, gurea etxerako ederra izanda ere, behin serio jarrita espainierari hel diezaiogula. Bada sasoia espainieraren mugez ere berba

egiteko. Etxerako euskara daukagun legez, kanporako ingelesa —edo txinera, aurki?— askoz beharrezkoago eta praktikoagoak direla barneratu dezagun. Ingelesa beharrezko da, indartu beharrekoa, ados. Ikasketak amaitutakoan ikasle oro da espainiera hiztun, baina asko ez dira euskal hiztun. Ondorioak argia behar luke: euskara eta ingelesa indartu behar dira, eta espainieraren tarte murriztu. Nahi duenak, hauta dezala ikasgai gisa, baina ikasle orok espainieraz dakienez, komeniko litzateke hautazkoen multzora pasatzea. Lasai, 50 urte barru euskara normalduta

badago eta nazioarteko hizkuntza —izan txinera zein ingelesa— euskaldun orok jakinda ere, espainolak indartsu jarraituko du. ■

«
Ikasketak amaitutakoan ikasle oro
da espainiera hiztun, baina asko ez
dira euskal hiztun. Ondorioak
argia behar luke: euskara eta
ingelesa indartu behar dira, eta
espainieraren tarte murriztu
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Goazelarik, gure xumean ikusten eta sentitzen gaituzte. AHTri buruzkoak eta Baterak proposatutakoak beren bidea egin dute. Bozketa gune ofizialetatik hara, haien inguruan ezarritako karpatoetatik zenbait jende iragan da. Ez dira gutxi izan bertaratu eta zertan ari ginen galdezka etorritakoak. Honek zenbaitekiko lehen harremanak izateko aukera eman digu. Era askotakoak hurbildu zaizkigu, eratutako kontsultak baldintza negargarrietan gauzatu behar izan ditugula agerian utziz. Gure mundutxotik at, inor gutxik zekien zertara zetorren lau bat lagunek mahaia eta afixak karpapean eza-

Batera

rri izana. Oro esplikatzen behar zen, deszentralizazio oinarritzkoenak ekar liezazkigukeen abantailak bat bestearen ondotik adieraziz. Bozka bakoitzak, aldameko bozketa gunean ez bezala, mintzaldi bat. Galdera zorrotzik ez genuen falta izan, independentzia hitza kopeta beltzez barne. Kontaketan ezetzen tropa osatzen zutenenak, noski. Pozteko motiborik ez zaigu falta izan, eragozpen guztien gainetik kontsultatuak izateko eskubidea gauzatu baitugu. Militante andana mugitu da prozesuan, eta fundamentuzko zerbait egiteko gauza bagarela ikasi dugu. Batera joatearen gozoa dastatu dugu, honek segida balu jangarria izan daitekeena. ■

Iñaki Barrena

EKOLOGISTAK MARTXAN-EKO KIDEA

Usurbil



usurbilgo zarama bilketa, ze eredu sendoa!, kantatu beharko dugu hemendik aurrera. Aspaldiko partez Gipuzkoan etxeko hondakinen inguruko eztabaidak, kudeaketa, plangintza eta mobilizazioak herrialde honen politikaren erdigunean egon dira.

Nola ez, jakina, Foru Aldundiak Zubietan errauskailu bat ezartzeko hartu duen erabakia ez zaio gipuzkoar askori gustatu. Hamabost urte inguru dira Diputazioak etxeko zaborrak erretzeko –edo balioztatze esan beharko nuke?– *Zer-garbi* proiektua bertan behera utzi zuela, eztabaida, mobilizazio eta polemika luzearen ondorioz. Garai hartan, hondakinen “balorapen energetikoa” garestiegi ateratzen zela agudiatu zuen.

Auzi sozio-ekologikoetan maiz gertatzen den moduan, urte batzuk pasa eta gero, erretiratutako proiektua berriz ere mahai gaineratu egin zuten eta errauskailuaren mamua agertu zen herriz herri: Lasarte-Orian, Zestoan, Urnietan... ibili zen Zubietan kokatu arte.

Horregatik Usurbilen gertatutakoa eredugarria da oso. Txikiegia, esango digute zarama erretzearen aldekoek, baina erduek, txikiak direnak ere, jarraitzeko eta ugaltzeko bideak erakusten dituzte.



INIGO AZKONA

ten dituzte. Ez dezagun ahaztu Usurbilen asmo eta iritzi ekologistek herri kontsulta galtzeko arrisku handia zutela, eta ez da ahaztu behar atez atekoaren aurkariak botoen %43a lortu zutela. Hots, patata beroa dugu etxeko hondakinen politika Gipuzkoan eta ausardiaz eta trebeziaz aritu dira Usurbilgo Udal Gobernua zein Dudipe elkarte. Eredua erein dute eta laster fruituak ikusiko ditugu. Ez da erraza proiektu eta politika neoliberalen aurka aritzea, ez hemen ez inon. Zirrikitu gutxi uzten ditu sistema kapitalistak bide alternatiboak urratu ahal izateko, baina Usurbilgo herri kontsultak demokrazia parte-hartzailea berpiztu du. Demokrazia bera. Eta gogorarazi digu ez dagoela bide laburrik gure inguruan ezartzen diren proiektu txikitzaileak geldiarazteko. Hau da, herritarren ahotsen indarra da azpiegitura erraldoien aurka eraiki daitekeen horma bakarra. Iparraldean ere erakutsi digute nola borrokatu daitekeen AHTren bide berrien aurka: aliantza, herri kontsulta eta mobilizazio zabalak egingez. Usurbilgo adibide ederra euskal politikaren arlo guztietara eramaten jakin beharko genuke, politika eraikitzaile eta alternatiboei txanda emateko. ■

« Usurbilen gertatutakoa eredugarria da oso. Txikiegia, esango digute zarama erretzearen aldekoek, baina erduek, txikiak direnak ere, jarraitzeko eta ugaltzeko bideak erakusten dituzte »

TXANDAN

Andoni Mujika



Kooperatibak eta herrigintza, alegia. Ezaguna da ko-

operatibek printzipioak dituztela: enpresa kapitalistek beren idearioetan ez daukaten konpromiso sorta plus bat. Hauen artean, beren herriarekin daukaten konpromisoa esplizituki jasotzen da. Aspaldian, zenbait faktore elkartu dira eta gure herrian ernaldu eta hazi diren erakunde sozio-ekonomiko hauek ez dute desiragarria izango litzatekeen besteko jarrera aktiborik herri txiki honen etorkizunaren estrategiarekin. Faktoreok dira: bat, enpresa hauetako liderantza exekutiboaren indarra gailentzen dela behin eta berriz bere beste indar insti-

Kooperatibak...

tuzionalaren gainetik, bi, lider kooperatibo euskaldunen autozentsura bat une erabakigarri netan, hiru, Espainia mailan saldu beharra, eta lau, errazagoa eta modernoagoa dela holako aspektuei inportantzia ez ematea. Erakunde kapitalista batzuek, sinesgaitza bada ere, perspektiba hau garbiago izan dute. Herri honetako talde kooperatibo indartsue nean, herri honen interes ekonomiko orokorrari erreparatu beharra dago. Herritarrok, politikook, eta agente ekonomiko-sozialek, hauek bereziki, herri perspektiba izan behar dute. Beste herri batzuetan eragile ekonomiko/politikoek garbi samar daukatena zalantzan izan dezakegu hemen. ■

Erretretaren aferra

Pau izozte eta lau haizetetako herria zen hura; mundu honetan direnen artean, hotzena. Abendurako hasten ziren jada hozte eta afrontuak: ilgoretan, elurtea suertatzen zen; ilbeheretan, erauntsia.

Hotzak hartuta, kikilduta eta uzkurtuta, lurpean bizi zen jendea; berariaz egindako kobazuloetan motelduta. Buztinetan zulatutako etxe modukoak ziren hango batzuk, arbeletan egokitutako egoitzak ziren beste batzuk; eta, bazen lastozko babesetan negua igarotzen zuenik ere.

Hotza eta horma, haizea eta ufada ziren herri hura guztiz erotzen zutena. Zeren hura, herri eroa baitzen; mundu honetan direnen artean, burugabeena.

ZAHARREN ITXIALDIA. Garai gogorra bizi zuten herri hartako denek neguan, baina batez ere zaharrek. Domusantuak hurbildu ahala, haiek ziren haiek, ordezeko hortzen dar-darazikoak. Amabirjina abendukoe-tan, haiek atzamar mamietako hozkaminak. Nahikoa zuten zaharrek neguari aurre egitez.

Baina, urte malapartatu batean, goia jo zuen neguetako eromenak. Zigor guztiz larria ezarri zien herri hartako Gobernuak zaharrei: hil arteko lanaldia. Ezin izango zuten erretretarik hartu zaharrek, harik eta urak errekan gora egin arte.

Azkenerrako, matxinatu egin ziren zaharrak. Eta, deliberatu zuten erretreta hartzea modu unilateralean, eurek euren kabuz. Gobernuak igorritako lau armadaren aurka egin, eta erabaki irmo eta aldebakarrekua hartu zuten: "Fabrikara berriz, ez!"

Zaharretxea hartu zuten erretretarako zoko eta txoko. Salda egin zuten bertan, eta ozen esan, entzun nahi zuten ororentzat: "Ez gaituzue hemendik aterako. Egin zuek lana!"

Atea itsutu zuten. Zaintza eta guardia jarri leihoetan. Herri berri bat eraiki zuten lau horma gotor haien baitan.



INIGO AZKONA



Leiho ireki eta pankarta
berria eseki zuten orduan
zaharrek balkoitik; honela zioen:
'Gustu badu, Hark egin
dezala lan, Presidenteak!'



irudia:

Antton Olariaga

DENBORAREN LANA. Bildu zen Presidente fabriketako nagusiekin. Bildu, sindikatuekin. Baina alperrik ari zen. Deliberamendu serioa hartua zuten zaharrek, eta "Nahikoa da!" zioen pankarta bat atera zuten balkoira.

Kafesnea prestatu zuten gaubeila luzeetarako. Ondo gozatua; zeren hagin postizoa besterik ez duenak, beldurrik ez azukreari.

Ezin eramana zuten batzuek zaharren konportamendua, eta hasi ziren, hasi, gazte batzuk zaharren aurka protestaka. Ziotenez gazte horiek: lan egin behar zuten zaharrek, berdin eragiten baitzien krisiak zaharrei nahiz gazteei. Harrika egin zioten balkoiari, pankarta hau-tsi arte.

Joan ziren elurak. Joan ziren haizeak. Joan, hotzak eta afrontuak. Eta heldu zen, heldu, ordutegia aldatzeko festa, martxoaren bukaera egin zen hura. Leioha ireki eta pankarta berria eseki zuten orduan zaharrek balkoitik; honela zioen: "Gustu badu, Hark egin dezala lan, Presidenteak!"

Zakurrak bere buztanari kosk: udaberriak uda ekarri zuen; udak, udagoiena; eta jakina, abenduak izotza. Guztiz tenkatu zen giroa neguaren usainetan, zeren zoroagoa bihurtzen baitzen herri ero hura hodei beltzak hurbiltzen zirenean.

Eta hola, hamaika negutan luzatu zen enfrentamendua. Bitartean, bere lana betez joan zen erlojuaren denbora, isilik. Herio etorri zen zaharren bila. Banan bana eramaten zituen: gizonezkoak astelehenetan, emakumezkoak ostegunetan.

Azken agurearen bila etorri zenean, pintada bat aurkitu zuten Herio delako horrek komuneko paretan: "Hik erretreta hartuko bahu, guk zertan harturik ez!". ■

BERTSO BERRIAK

Onintza Enlenda

44

I

Ohetik urten beharrak sarri
emon deust kristoren lana:
“Lanera joan orduko jantzi
egin behar dot ai ama!”.
Nahiz eta jakin edertasuna
azalpean dagoana
ispiluaren aurrean jarri
ta alper-alperrik da dana.



DANI BLANCO

IV

Ohetik jagi eta gaur egun
esaten dot ke guay, ke guay!
Beste egun bat daukat kanpoan
osorik bizitzeko zai
ispiluari barre eginda
jazten naz koketa lasai
Ez dakit zenbat pisetan dodan
eta jakin be ez dot nahi.

II

Armarioko tapan daukadan
ispilu santu honegaz
segurtasunak joaten jataz
sarritan aidean hegaz.
Niki bat kendu, beste bat probau
ez nago ondo ezegaz...
Nire aurrean dagoenagaz
hasarratu egiten naz.

V

Marilyn Monroek biziko balitz
eukiko leuken antzean
berrogeita lau marketan dabe
nire erropek atzean.
Hori pentsetan barreak alde
eitten deust lanerantzean
eta ze ondo sentitzen nazen
lantokian jesartzean.

III

Hiru mitxelin kontetan dodaz
gerritik titi azpira
inoz pentsau dot aizto bategaz
ebagi ahalko balira!
Inoz egin dot negar apur bat
flotadorari begira
baina gaur pozik ohiu egiten dot
honeek be neureak dira.


VI

Telebistatik botaten dabe
Pasarela de Cibeles
begiratu be ez dot egiten
ikusi nahi ez dodanez.
Talla txikiak diren dendetan
ahal dala sartu be ez
ez dot dirurik hemen gastauko
onartzen ez nozuenez.

VII

Amaitu ziren dietak, amaitu
konplejuak azkenean
ispiluari beldurra galtzen
hasi nintzen egunean.
Danok kabidu geinke munduan
geure praken barrenean
eta ondoen kabitzen gara
benetan geu garenean.
Akabo talla inposatuak
akabo azken finean
irresistible sentiduten naz
barreka nagoenean.

DOINUA: “Haizea dator ifarraldetik”.



Bidali zure sortak **bertsoak@argia.com** helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

e r d i k o k a i e r a

«Beste literaturetako botere-borroken aldean gurea ez da ezer»

Otsailetik da Ander Iturriotz (Ordizia, 1961) Euskal Idazleen Elkarteko lehendakari. Lan berria, elkarriketak barra-barra, agenda hitzorduz gorri. Hala ere, eragozpenik gabe onartu du hizketarako proposamena. Donostian da zita, EIEren egoitzan, Zemoria kale malkartsuan. Euskal literaturaren esparrua osatzeko unea dela uste du Iturriotzek, irakurleengana zuzentzeko tenorea.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Axier Lopez

Utzi konparazio gaizto bat egiten: EIEko lehendakari izatea ez al da futbol partiduko arbitroa izatearen pareko? Gauzak ondo eginez gero, inoren esker onik ez; kontuak okertzen direnean berriz, denak txistuka.

Baloiak kanpora botako ditut [barrez]. Elkarrean arazoak badaude, elkarte guztietan bezala. Badaude, eta egongo dira, batez ere guk daukagun giza-materialari begiratuta: bakarka dabilen jendea da, bere helburuak dauzkana, bere liburuak, publikazioak, ospea... Horrek ematen dio beste konfliktibitate maila bat. Egituraketan ere aldaketa asko egon dira eta egongo dira; diru-

iturriei begira ere bai... Hau elkarte bizia da, eta elkarte bizi guztietan gertatzen dira tirabirak. Hori asumitu behar da, arazoak ahalik eta gehien minimizatu eta saiatu konpontzen. Baina baloia kanpora bota behar dudala esaten nuen, EIEri buruz hedabideetan agertzen dena gehienetan arazoak direlako. Oraingoan, zehazki, bekadun bati lan ituna suspenditu zaio eta horrek izugarrizko oihartzuna izan du. Beste guztiak, ia ezer ez. Eta oso kurioa da, lehenbiziko galdera hortik etorri da. Bitxia da, munduari buruzko nolako ikuspegia daukaten kazetariak ere. Baina bueno, dauden problemak

Ander
Iturriotz





konpondu behar dira, ez naiz etorri pentsatuz ezer egongo ez denik, norberak ezagutzen duela dagoeneko mundua, esperientzia dauka bestelako erakundeetan, eta guztietan daude arazoak.

Lana zeure gain hartzean esan zenuen aurreko zuzendaritzaren ildoan jarraituko zenuela, baina ñabardura batzuekin. Zeintzuk izango diren aurreraterik bai?

Ildoez hitz egiten denean badirudi linea politikoez edo ideologikoez hitz egin behar dela. Ez da hori gure kasua. EIEk urte batzuk dauzka, eta badauka linea bat; lerro bati jarraitu dio, eta aroz aro eduki ditu helburu batzuk. Lehenengo izan zen idazleak antolatzea. Elkartea orduan sortu zen: idazleen babes, dinamika, sinergiak, elkarrekin jarri beharra... Bigarren fase bat etorri zen gero, lineaz aldatu gabe: literaturaren sozializazioa. Orduan hasi ziren gogoeta batzuk, nola atera literatura idazleen mundutik, nola hurbildu irakurleengana, eskolara... Eta nik uste dut orain hitz egiten hasi dela hirugarren urrats bati buruz, literaturaren esparru osoa osatzera datorrena: irakurleari begirako urratsa. Gustatuko litzaidake esparrua osatzea. Literaturarena esparru bat baita: ez dute idazleek bakarrik osatzen, ezta irakurleek bakarrik ere, ezta argitaletxeek soilik ere. Dena da bat. Horien artean sor daitezkeen dinamikak adosteko eta orekatzeko momentua da.

"Inoiz ez dugu lortuko bertsogintzak daukan sarea, antolaketa eta arrakasta. Baina heren bat edo hamarren bat lortuko bagenu, nahikoa izango litzateke".

"Gutxi irakurtzen bada, bitxia da nolako kalitatez irakurtzen den. Hemengoa ez da edonon gertatzen: beste kultura batzuetan irakurle klub ordez fan-klubak sortzen dira"

Zein dinamika?

Kulturalki daukagun ahuldade honetan, beti iruditu zait oso bitxia, eta ez da oraingo kontua, nola bat-batean antolatu diren klub batzuk: Basaurin, Larrabetzun, Iruñean... Jendea bere kabuz biltzen da hilabetean behin, liburu bat irakurtzeko konpromisoa hartu eta horri buruzko gogoeta bat egiteko. Euskal kulturagintza horrela sortu da beti; eta orain iritsi zaio irakurleari bere momentua. Horrek erakusten du euskal literaturagintza momentu interesgarrian dagoela. Beti egon dira kexuak argitaletxeen aldetik, gutxi irakurtzen ote den, gutxi saltzen ote den... Ez nago oso ados. Ze, gutxi irakurtzen bada, bitxia da nolako kalitatez irakurtzen den.

Hau ez da edonon gertatzen: beste kultura batzuetan, asko jota fan-klubak sortzen dira, idazle konsagratu bat hartu eta sinadura eskatzera joaten dira. Hemen ez da hori: azpitik sortu da, jende bat interesatuta zegoelako kulturagintzan, eta literaturagintzan. Horrek gune batzuk sortu ditu eta EIE ezin da hortik arrotz bizi.

Hor egon behar du, horrelakoak bultzatu.

Bertsozale Elkarteen paradigma aipatzen da horretaz hitz egitean... Horrelako zerbait daukazu buruan?

Izan daiteke, baina alde izugarriak daude. Bertsoaritzak egitura mailan daukan oinarria eta literaturak izan dezakeena oso desberdinak

dira. Bertsogintza bezalako esperientziarik ez dago mundu osoan gaur egun. Badaude ahozko kultura asko, baina inon ez da lortu hemen Bertsozale Elkarteak lortu duena: mundu osoan periferikoa eta baztertua den zerbait masa fenomeno bihurtzea. Eta ez masa fenomenoek daukaten alderdi ezkorretik, erakurpen indarraren aldetik baizik. Hori pentsaezina da beste edozein lekutan, eta erakusten du euskal kulturgintza oso indartsu dagoela. Hori bai, hori emulatu nahi izatea literaturatik, ezinezkoa dela uste dut. Bertsogintza oso gauza bizia da, bat-batekoa, edozein lekutan antola daiteke saio bat, jendea engaiatzen da. Literaturak beste erritmo bat behar du, irakurketa patxadatsu bat, idazketa ere bai... Inoiz ez dugu lortuko bertsogintzak daukan sarea, antolaketa eta arrakasta. Baina heren bat edo hamarren bat lortuko bagenu, nahikoa izango litzateke.

Hitzaren Ubera egitasmoa aipatu zenuen horren harira. Gehiago zehazterik izango ote zenuke?

Oraintxe garatzen ari garen proiektua da; bazkide bi ari dira horretan lanean eta oraindik bidean dago, beraz, zehaztasun handirik ezin dizut eman oraindik, ez baitakit noraino joango den. Helburua zein den bai: klubak aipatu ditugu; eta blogariak ere hor daude, fenomeno moduan. Sarean literaturari buruz hitz egiten da, eta kritika ere sortu da akademiatik kanpo. Fenomeno oso interesgarria da, ze, duela urte gutxi euskal kritikan ez zegoen; edo ezin zen egin. Eta orain, bat-batean, kritika akademikoak bere lerroa ireki du; eta horrekin batera egunkarrietan, aldizkarietan, blogetan... kritika ez-akademikoa sortu da, baina nolabait formala dena, publikoa delako. Jendeak iritzia ematen ditu, batzuk



Arabako lehenengo BERTSO TXAPELKETA 2010

1. FINALERDIA

Apirilak 11, igandea, 17:30etan, Zigoitiko aretoan

ARAMAIO

VS

KAKITURRI-EHARI (Gasteiz)

Kooperatzailea: Arabako Foru Aldundia (Departamentu Foral de Añesa) www.alarria.net

Kooperatzailea: Obra Social Caja Vital Vital Etor

Kooperatzailea: argia

oso gogorrek; hala ere, aintzat hartzekoak. Gustatuko zaigu estiloa ala ez, baina tabu bat haustea ekarri du. Aberasgarria da, nahiz eta batzuetan modu oso gogorrean ateratzen da. Ez gaitu harritu behar horrek: euskal literatura ez da zeru platoniko bat... eta orain arte hori izan da. Konparatzen badugu beste literaturetan, literatura normalizatuetan, Frantzia edo Espainia edo Alemanian dauden botere-borroketan, gurea ez da ezer. Botere-borroka, noski, Pierre Bordieuk aztertu dituen erakundeak: hau da, literatura botere-esparrua da. Gurea ez da izan, baina orain izaten hasi da; eta hori normalizazio puntu bat ere bada. Internetek hori bultzatu badu, EIEk ere eduki behar ditu medio birtual batzuk, sare batzuk. Hitzaren Uberarekin hori indartu nahi da, bestelako ikuspegia eman, askoz interaktiboagoa.

Botere-borroka aipatu dituzunez: euskal literaturako banderizoen artean EIEk bilgune funtzioa ere bete beharko luke?

Tira, banderizoen metaforak erakusten gaitu euskal literaturak ezagutzen ez duen egoera batera. Botere-borroka sortzen da boterea dagoen lekuetan, eta oraingoz, nik uste, euskal literaturak ez dauka entitate hori.

Neurri batean bai, ezta? Literatura bada Euskal Herria errepresentatzeko bide bat.

Bai, eta badaude, esaterako, sarien inguruan modu nahiko interesatuan sortu diren erreferente berri batzuk. Botere-esparru hori hor dago, eta horrek ere sortzen ditu tirabirak. Baina hortik beherago ere beti egon dira euskal literaturan idazleak eta estiloak. Antzeko estiloa dutenak elkartu izan dira, sintonia bat daukatelako. Logikoa da, normala eta EIEk horiek guztiak normaltasunaren barnean hartu behar ditu: denak dira bazkide, denak dira literatoak eta dena da produkzio literarioa. Inondik inora ezingo genuke hor eskurik sartu; aitzitik, hori normaltasunaren barruan hartu beharko genuke, desdramatizatuz. Agian gehiegi dramatizatzen dira gauza hauek, eta idazle jende batek izan dezake joera horretarako, gauzak oso modu pertsonalean hartzen dituztelako. Hori bai saihestu beharko litzatekeela, deskalkifikazio pertsonal horretatik kritikara pasaz.

Alde problematikoak ari naiz galdezka, eta gauza atseginagoak ere ateratzen nahi nituzke: arreta deitu dit "Idazleak ikastetxeetan" programak izan duen hazkundeak.

Urtero programa hori eskaintzen dugunean Eusko Jaurlaritzarekin adostasun batera iristen gara eta onartzen ditugu X ekitaldi. Iaz

"Euskal literatura ez da zeru platoniko bat... eta orain arte hori izan da"

horiek betetzeaz gain, gehiago egin genituen, finantzabide gutxiagorekin. EIEk dauzkan diru-iturriak zabaldu, ustiatu eta aprobetxatu behar ditu ahalik eta gehien. Azkenean gure helburua hori da, kasu honetan literatura sozializatzea, eta horretarako erabiltzen ditugu dauzkagun diru-iturri guztiak.

Auto-finantzaketa ere aztertzen ari zarete.

Dena aztertzen ari gara [barrez]. Sinesten dugu lor dezakegun diruak oso aplikazio ona daukala. Ari gara publizitatea lortu nahian, administrazioetik kanpo egon daitezkeen beste gune ekonomiko batzuetara jotzen, enpresetara... Gauza batzuk oraindik eztabaidatzen ari gara, baina horretan gaude: administrazioaren diru-iturriak jaitsi direnean —eta ez bakarrik guretzat, kultura guztia kaltetu da— pentsatzen dugu ezin diogula uko egin dauzkagun dinamika interesgarri horiei. Aldez edo moldez horiek babestu behar ditugu.

Bukatzeke, liburu elektronikoaz jardun nahi nuke: CEDRO bezalako erakundeak idazleen eskubide digitalak eskuratu nahian dabilta. Ez al dago kontraesanean praktika hori, Interneten berezko dinamikarekin?

Eztabaida hori oraintxe iritsi da elkartera. Batetik eta bestetik antolatzen ari dira mintegiak. Euskal literaturan oraingoz liburu digital gutxi daude eta argitaletxeek ez dakite eutsiko dioten bide horri; ez dakite euskal kulturak eman dezakeen; edo gehigarri hori interesgarria ote den euskal kulturarentzat. Batzuek badirudi onartu dutela, baina beste batzuek... ez dago hain argi. Hori argitu arte eztabaida guztiak teorikoak izango dira. CEDROk eta Espainiako egile-eskubideen elkarteak dituzten jarrerak gaur egun oso inpopularrak dira. Bakoitzak bere iritzia izango du; elkarteak ez du oraindik honetaz eztabaidatu, baina horretan ari gara, azken batean galderak egiten ari zaizkigulako eta noizbait erantzun beharko dugu. Nik pertsonalki nire iritzia daukat, eta agian ados egon naiteke zuk egin didazun planteamenduekin, baina badakigu gaur egun sareari kateak jartzeko beste asmo batzuk ere badaudela. Guk Internet hau ezagutu dugu, baina ez dakigu hemendik urte batzuetara zer izango den; eta badirudi merkatua nagusitzen bada Internet ere klub pribatu bilakatuko dela. Dena etortzeko dago. Guri berandu iritsiko zaigu. Eta agian, zorionez, iristen denerako gauzak atzerrian konponduta egongo dira. Ez dut uste premia biziko arazoa denik momentuz. Baditugu helburu garrantzitsuak. ■



Jaso euskal kultura egunero 10 albistetan



*Harpidetza doan e-postaz
Dagoeneko 2.500 harpidedun*

hari@

euskal kulturaren buletinak 10 urte

Harpidetu zaitez:

www.argia.com/harpidetza_haria.php

 **argia.com**



Liburuak

KRITIKA


Gauaren sakonean.

Haruki Murakami.

Erein. 248 orrialde. 19 euro.

Helduen literatura

Gema Lasarte



Zer egin daiteke sei ordu eta 56 minututan?

SEI ORDU ETA 56 MINUTUTAN Tokion gau batez gertatutakoa kontatzen digu modu linealean Haruki Murakamik. Zer egin daiteke, ordea, sei ordu eta 56 minututan? Neska protagonista tabernara doa liburu bat eskuan gaua pasatzeko eta irakurtzeko asmoz. Intentzio horrekin joan bada ere, bere inguruan pertsonaiak eta istorioak harilkatzen joango dira. Pertsonaia hauek, denak ere modu zirkularrean istorioetan sartzen joango dira. Hartara, pertsonaien eta istorioen arteko ebakidura eginaz, izendatzaile komuna atera daiteke, matematiketan bezalaxe. Eta istorio guztien arteko izendatzaile komuna zein den? Nik, bederen, bakardadea begitandu dut. Bakardadea, inkomunikazioa.

Kritikak iritzi dio Haruki Murakamik 2004ean idatzitako nobela hau bere beste eleberriekin alderatuta apalagoa dela. Izan daiteke, baina sekulan haren beste libururik irakurri ez dugunok asko goza dezakegu Murakamik Tokioko gaua deskribatzeko erabili duen kontakizunarekin. Marik –protagonistak– Tokioko tabernetan barrena eramango gaitu bakardadea lagun, Takahasik jazza jarriko dio gauari eta Erik loti ederrak, literatura. Horrela, zirkuluetan osatzen den narrazio honek musika, literatura eta errealtatea osagai ditu bere kontakizunean.

Sei ordu eta 56 minututan irakur daitekeen kontakizun honek badu ordea interesa pizten duen istoriorik eta protagonistatik urrun geratzen den gertakizunik. Esango nuke, epizentrotan dauden protagonisten gaiak baina harago irakurlea eramango duen pasarterik baduela eta irakurlea bukatu arte horien bila ibiliko dela. Eta istorio horietan hain zuzen ere, zirkuluak irekiak geratzen direla; irakurlea beste zerbaiten zain geratzen dela. Nire ustez horrek ematen dio indarra eleberriari, ustezko protagonisten istorioak ez direlako istorio nagusiak. Periferiatik dator indarra.

Nobelaren egitura, gauaren erritmoa, fantasia, gai errealak, pertsonaiak eta istorioak nahasteko moduan dauka zeresana nobelak. Gaua oso modu diferentean ikus daiteke: kamera baten bidez, pertsonaien ahotsen bidez, musikak jarritzen dizkion erritmoen bidez. Horiek dira eleberri honen izatea eta egitea. Pertsonaien edota gai sakonen bila dabilenak jai dauka. Horiek bazterrean geratuko dira *lovehotelen* batean. Pertsonaiak eta gaiak aitzakia besterik ez dira Tokio gau batez gozatzeko. ■

Poesia eta sexua, bi plazer uztarturik

Irakurtzea plazera bada, eta sexua ere bai, zergatik ez uztartu biak? Ba, euskal literaturara gutxitan nahastu ei da erotismoarekin. Hori esaten da. Eta kontrakoa esateko dator Txalaparta argitaletxearen eskutik kaleratu den *Desira plazer 68-08* bilduma. Izan dela, badela eta egongo dela euskal


poesia erotikorik. Bertso-lerro beroenen antologia hau 1968an abiatzen da eta, orgia handi bat bailitzan, idazle ugari laztantzen ditu: Xabier Lete, Amaia Lasa, Arantxa Urretabizkaia, Xabier Montoia, Iñigo Aranbarri, Oier Guillan, Castillo Suarez, Nagore Etxabe... Igor Estankonak, Edorta Jimenezek eta Josune Muñozek osatu dute antologia. ■



Desira plazer. Batzuen artean.
Txalaparta.
262 orrialde.
19 euro.

Historiaurreari buruzko dibulgazio lana

Erramun Amundarainek, Iñaki Gonzalez Garaik eta Alizia Stürtzek osatu dute *Historiaurrea urratsez urrats* liburua. Gaiak argitaletxearen bidez publikatu den lan honek gure aspaldiko arbasoen nondik norakoak azaltzen ditu: nola bizi ziren izotzaldietan, zer chizatzen eta jaten zuten, nola asmatu zuten sua egiten, nolako lanabesak erabiltzen zituzten... Baina bestelako kontuak ere badakartza liburuak. Hizkuntzaren sorrera, kasurako. Pertsonen aurreneko hitzak noiz esan zituzten? Eztabaida ugari sortu izan duen gaia da, eta liburuak egon diren hipotesiak azaltzen ditu. Baita beste eztabaidagai batzuei buruzkoak: haitzuloetako artea, adibidez. ■



Historiaurrea urratsez urrats.
Batzuen artean.
Gaiak.
147 orrialde.
19 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



(Bigarren lana).
On Benito.
Autoekoizpena.
Iraupena: 34'36".
10 euro.

Blues-punk txatarrerotik inprobisaziora

IZEN HAIN ONA eta helburu hain okerrak dituen talde honen atzean Joseba Irazoki nekazetza eta Borrokan taldeko Mikel Lertxundi eta Ibai Gogortza daude. Honakoa proiektu honen bigarren lana da, eta aurrekoan blues-punk-rockabilly txatarrerok landu zuten arren, oraingoan askoz harago joan dira. Blues-punk txatarrerokaren kirasak eta Jon Spencerren senitartekotasunak beraien arropa eta instrumentuetan itsatsita jarraitzen badu ere, zortzi kantotan bur-

muinak eta arimak libre joaten utzi eta nahi izan duten guztia esperimentatu dute, perkusio eta erritmo errepikakorrek, distortsioekin eta haizezko instrumentuekin. Horrez gain, baina, gai izan dira Sheelac, Man or Astroman, Hammerhead edo psikodeliaren oihartzunak ere bereganatzeko, besteak beste. Inprobisazioa eta ganberrismoa euskaraz, jakina!

www.myspace.com/onbenito

Joseba Irazoki - On Benito

«Ongi pasatzeaz gain, euskara lagun dugula blues musika pixka bat mareatu nahi dugu»

Nondik etorri zen izenaren ideia?

Etxalarko zerri hiltzailea da nik ezagutu dudana lehenengo Benito jauna. Horrez gain, Mikel Lertxundi bateria eta biek bromatan ibiltzen ginen Benito Lertxundiren inguruan eta horrela sortu zen izena. Hainbeste proiektutan murgilduta zaudenean, ezinbestekoa da ganberroarena egitea?

Nire kasuan hala da, adinaren krisi ttikia pasata ganberroarena

egiteko gogoia sartu eta primeran pasatzeko proiektua sortzea pentsatu genuen. Entzuleari hori transmititzen saiatzen gara eta oraingo harrera hagitza ona da. Ongi pasatzeaz gain, musikalki zerbait berezia egin nahi dugu; euskara lagun dugula, blues musika pixka bat mareatu. On Benito musika estiloz guztiz irekia da?

Ez diogu gure buruari inongo mugarik jarri nahi, gehienez proiektuak blues ukitu bat edukitzea, baina bertzelan edozein instrumentu erabili eta edozein erokeria egiten dugu.

Disko hau sorpresa xaxa da hasieratik bukaera arte. Bazegoen gidoirik?

Grabatzen hastean zortzi kanta-idea genituen, baina konturatu ginen kantei norabide argirik ez zutela. Behin oinarriak grabatuta genituela, lokalera bueltatu ginen gauza desberdinak probatzeko asmoarekin. Hor hasi zen benetan forma hartzen diskoa, jolasen ibili ginen inongo presa eta gidoirik gabe gustuko emaitza lortu arte.

Zalantza bat: indioak Berako Aduanaraino heldu ziren?

Zuberoako indioak bai! Kantuz aditu eta diskoan parte hartzeko gonbitea egin genien!

Noiz jarriko da martxan Atom Rhumba? Eta zer puntutan geldituko dira zure beste proiektuak?

Atom Rhumbarekin apirilean hasiko gara kontzertuak ematen kanta berriak neurtzeko, udan diskoaren grabazioa egingen dugu. Nire proiektu pertsonalak segur aski azkeneko utzikiko ditut, baina aterako dut denbora aitzinera eramateko. ■



JOXE AREETA GOÑI "JUKE"

Ezpalak

URKO APAOLAZA / JON TORNER

Karlismoaren museoa zabalik da Lizarran



NAFARROAKO GOBERNUAK duela astebate inauguratu zuen Lizarrako Karlismoaren Museoa. Eraikinak 1830etik 1939 arteko karlismoaren historia biltzen

du eta horretarako, besteak beste, Euskal Herriko Alderdi Karlistak (EKA) material ugari –aurretik Eusko Jaurlaritzak zaharberritutako 200 pieza ingurutu dio Nafarroako Gobernuari. Museoak, ordea, ez du jasotzen 1939tik aurrerako karlismoaren historia-rik, hala nola, frankismoarekin izan zituzten tirabirak edota 1976ko Jurramendiko gertaera lazgarriak.

● **Pio Ortiz de Pinedo Eskena elkarteko lehendakariaren jakinarazpena, Antzerkiaren Nazioarteko Eguna-ren karrieta:** «Denbora gehiegi eman dugu gure zilborrari begira eta publikoari –egiten dugun lanaren hartzaile nagusiari– jaramonik egin gabe. Arte eszenikoaren biziraupenerako eredu berria sortzeko gai ez bagara, lehenago edo beranduago, eskuetatik ihes egingo digu publikoak. Artea eta obren kalitatea leihatilako interesen gainetik babestuko dituen ereduak; sormenaren, produkzioaren, komunikazioaren eta ikuskizunaren begiradak bilduko dituen ereduak; ezinbestekoa den eta oraindik bizirik dagoen artearekin gizarteak, oro har, harrapatzeko gai izango den ereduak».

● **Loli Astoreka aktoreak Bizkaie! webgunean:** «Tristura ematen deust euskal antzerkiak ze lan-baldintza eskasakaz jarraitzen dauen ikusteak. Nik bizitza osoa emon dot lanean eta orain, nire edadeagaz, jubilazinoan pentsetan hasi naz eta ikusten dot ez dagoala modurik, kotizazino urte asko falta jatazala erretiro minimo bat jasoteko eta ez dakit zelan lortuko dodan. Eta hori oso gogorra da (...) Azkenean, bardin jat zinema lan egin, telebistan edo antzerkian. Egia esan, ofizioa gustetan jat. (...) Lana amaitzen danean, beste zeozer itxaroten zagozanean, lasaitzen ikasi behar dozu. Ansiedade asko ematen dau lanaren zain ego-teak, oso gogorra izan behar zara behea ez joteko».

Joana Itzaina (Itsasu, 1981) da Bertsularien Lagunak Iparraldeko bertsolari eta bertsozale elkar-teko lehendakari berria. Ortofonista ikasketak egin ditu Itzainak, eta 2006an hasi zen gai-jartzaile lane-tan. Txapelketa Nagusian lehenengoz parte hartu zuen iaz.

Seiren musika talde bizkaitarrak bigarren diskoa kaleratu du: *Marraren beste aldean zu* (Brian's Records). Lan berria aurkezteko birari apirilaren 23an ekingo dio, Mungiako Olalde aretoan. Hurrengo egunean Zornotzako Zelaieta zentroan eskainiko du kontzertua.

Ander Olaizola argazkilaria goizuetarrak *Baso baten egunerokoa* argazki liburua autoekoiztu du. Betidanik ezagutu dituen basoetan bizitako sentazio eta espe-rientziak jaso nahi izan ditu irudi eta testu laburren bidez. *National Geographic*, *Pirineos* edota *Naturfoto* argi-talpenentzako lan egin izan du Olaizolak (www.androlaizola.com).



Sagarroi musika taldeak agur esan du hamar urte bete eta gero. «Kontzertu kutunez beteriko hamarka-da oso bat izan da», diote Iñigo Muguruza eta kon-painiak euren webgunean, «Euskal Herria, Katalunia, Galizia, Madril, Alemania, Kuba, Suitza, Kroazia, Eslovenia, Serbia, Italia, Errusia eta Japoniak esze-natokitian». Bost disko plazaratu ditu Sagarroik: *Meatzaldea* (Metak 2001), *Euria ari duela* (Metak 2003), *Toulouse* (Metak, 2004), *Baleike* (Kasba, 2006) eta *Hai-kua* (autoproduzitua, 2008).

Udaberri Teatroa konpainiak *Shyllock Gallerie* obra estreinatu du. Ana Miranda, Ander Vildosola eta Jorge Carrero aktore donostiarrek taularatu dute, Mirandaren zuzendaritzapean. Shakespeare-ren *Venezziako merkataria* obran oinarritua, margola-ri gaztearen, galeria bateko jabearen eta arte kritika-riaren arteko harreman istorioa kontatzen du, ikuspegi ziniko batetik.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

JON TORNER

Malet-Tardi bikotearen klasikoa

Reyerta en la Feria
 Léo Malet / Jacques Tardi
 Norma Editorial (1. edizioa: 1997)
 78 orrialde, zuri-beltzean



ATSEGIN dut liburutegira joan eta *Berrienak* apaletik bi pausora, komikiari eskainitako gunean, *Reyerta en la Feria* moduko klasikoak aurkitzea. Heldu berri diren liburuei begiratu azkarra eman ostean, denbora gehiago pasa ohi dut gustuko aleen artean saltseatzen, sarri, nobedadeekin arriskatu baino, nahiago dugulako aseko gaituela badaigun liburua hartzea. Oraingoan ere merezi izan du.

Léo Malet (Montpellier, Frantzia, 1909-1996) idazleak sortutako Nestor Burma detektibe pribatua da *Reyerta en la feria* komiki beltzeko bi protagonistetako bat. Pipa erretzaile amorratua, Georges Simenon (1903-1989) nobelagile belgikarrak sortutako Maigret komisarioaren antza du. Hura, ordea, Frantziako polizia judizialeko komisarioa zen eta Burma, Frantziako polizia judizialaren mesfidantza sortzen duen detektibe ipurterrea.

Bigarren protagonista nagusia 1950eko hamarkadako Paris da, zuri, beltz eta grisezko hiriburu euritsua. Jacques Tardi (Valence, Frantzia, 1946) komikigileak zehaztasunez marraztu ditu autoen faroek argizatutako eraikin eta etorbide eleganteak, berdin euriak bustitako galtzada harritsuak, Nazioaren Plazako feria ahaztu barik, noski.

Hantxe abiatzen da istorioa, Burma detektibea emakume eder baten pausoei jarraitzen hasi eta *Super zortzia* izeneko atrakzioan gizon batek eraso egiten dionean. Zergatik? Burmak ez du erantzuna berehalakoan aurkituko. Poliziak, txupa beltzeko gazte borrokazaleak, enpresari aberatsak, maitaleak, feriako artistak, 150 kilo urre eta hildakoak, hildako franko aurkituko du bidean.



Vitoria-Gasteiz
VG

Gasteizen euskarazko
 hauek ez galdu:

GOZATU EUSKARAZ LIBURUTEGIETANI

Gonbit-txartelak astebete lehenago ekinga egingo den liburutegian:

ARRIAGA

- Hala bazan edo ez bazan... batzuetan soberan baino hobe falta izan. Apirilak 10, 18:00. Ipuin kontalaria. Adina: 3-6

IPARRALDE

- Kamishibai ipuinak. Apirilak 22, 18:00. Ipuin kontalaria. Adina: 3-5

HEGOALDE

- Munduko zenbait kondaira. Maiatzak 3, 18:00 Ipuinak (kamishibai). Adina: 3-6

ALDABE

- Gazi gezako istorioak. Maiatzak 5, 18:00. Ipuin kontalaria. Adina: 5-10

IBAIONDO

- Tina. Maiatzak 5, 18:00. Txotxongiloak. Adina: 5-8

LIBURUAREN NAZIOARTEKO GUNAREN INGURUKO JARDUERA PROGRAMA

- Irakurzaletasuna eta sormen lanak bere bidetik doazenean. Ruben Ruiz eta Eider Eibar. Apirilak 20, 20:00. Gaiuri jauregia
- Maites-sua eta erotismoa euskal poesian. Josune Muñoz, Igor Estankona eta Edorta Jimenez. Apirilak 22, 20:00. Gaiuri jauregia. Sarrera doan, lekuak bete arte. 19:40tik aurrera sar daiteke.

ETORRI ETA GOZATU GUREKINI



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
 Vitoria-Gasteizko Udalak

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak

MALBA PERTSONAIA- REN IZENA	FENIZIAKO BIZTANLE ZUT	BARAZKI MOTA	 ALLANDE SOKARROS		PIKONDOA- REN FRUITU SARRAILA IREKITZEKO	DEITURA KUIAREN FAMILIAKO FRUITU	UBIDEA AKULATUZ, ZIRIKATUZ
ERDIGUNE GORANTZ ZUZEN					BURUKO TXIKI ZATI TXIKI		
			BURDINA LANTZEN ZEN LANTEGIA OSPEA	ALTUERA EZEREZETIK SORTU, EGIN			
IODOA ... ITURRIAGA, BERTSOLARIA	GOGORKI AFRIKAKO HERRITAR				HEGAZTI MOTA EURITAKO		
		ZARTADAKA, KOLPEKA LEHORTE					
EGUNSENTIA	ALDI IRRI, BURLA		LUR EREMU ZABALA HODIA				NAFARROA- KO HARANA
					ABAGUNE, AUKERA ZATOZ, ZATOZIE		ANPEREA NAFARROA- KO HERRIA
MUSIKA NOTA TEKLATUA- REN GILTZA		MASKARA- DETAKO PERTSONAIA ZORU, ZOLA				BAKOITZA- REN JOKAMOLDE NAHASTE	
			TURKIAR HAMAKA				TALIOAREN SINBOLOA DEZIGRAMO
SUBSTANTZIA ELASTIKOA ZABALDU, HEDATU				DISTIRA, DIRDIRA TONA			
					IZAN		

Kike Amonarriren umorea

Dentista

Tolosako dentista ezagunak halaxe esan dio konfiantza handiko bezero bati:

- Hortzak garbitu behar dizkizut. Eta garbitzen hasi orduko, zuk egin garrasi ahalik eta ozenkien!
- Baina horrenbesteko mina egin behar al didazu?
- Bai, zera! Batere ez! Baina egongela bezeroz beteta daukat



WWW.FREAKINGNEWS.COM

eta gaurko pilota partida hemen-dik ordu erdira hasiko da ETBn!

Soluzioa

K	Z	A	I	N	A	A	A	N
E	T	Z	I	N	E	R	A	
L	T	X	I	N	O	K	I	L
P	I	K	U	Z	E	R	A	
G			L	I	O	K	I	L
			O	L	I	T	A	K
			I	K	I	E	S	T
F	L	E	K	I	Z	A	R	E
X	G	U	N	E	I	N	T	A
Z	I	G	U	T	I	F	A	S
M	Z	I	N	A	I	R	R	I
						S	I	K
						T	E	K
						A	U	T
						B	A	R
						R	E	I
						E	G	O
						N		

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**



Informazio gehiago nahi baduzu: **ARGIA**

Industrialdea 15 • 142 P.K.

LASARTE-ORIA 20160

Telefona 943 37 15 45

posta-e: denda@argia.com

<http://www.argia.com/makilak.htdocs>

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Poluzioak bihotzari nola egiten dion kalte aztertu dute

HIRI ASKOTAKO AIREA kutsatuta dagoela gauza jakina da. 2002an egindako ikerketa batean behatu zenez, karbono monoxidoa 1,1 ppm (milioi partikulako hainbat) handitzean hilkortasuna %1,7 handitzen da.

Berriki, Frantziako Montpellier eta Avignon-eko unibertsitateetako ikerlari talde batek arratoiak karbono oxido kopuru handi samarra –kutsatutako hirietan izaten den adinakoa– zuen gela batean eduki zituen lau astetan, eta arratoien bihotzetan ez-normaltasunak agertu ziren. Batetik, bihotzak handitu egin zitzaizkien, eta bestetik, askok arritmia izan zuten. Handik pixka batera hainbat arratoi bat-batean hil ziren, ziurrenik arritmien eraginez.

Arratoiekin egindakoa ezin da gizakiarekin egin, baina arestian aipatu ikerketa-taldeak gizakia bere habitat naturalek irten gabe aztertu nahi du, behaketarako tresna aurreratuak erabiliz. Ziur daude hiri poluituetako pertsonen bihotzetan gertatzen denak arratoiak jazotakoarekin antz handia izan dezakeela.



Ebakuntza-geletarako arropa bereziak

ZIRUJAEK, ebakuntzak egiteko unean, argi bizia izaten dute inguruan, eta hotza baino izerdia egiten dutela esan daiteke. Baina hori ez zaie gertatzen ebakuntza-geletan dauden laguntzaileei, are gehiago, normalki gel horietako tenperatura hotza izaten da eta zirujauen laguntzaileek hotza jasan behar izaten dute, askotan ordu luzez. Albertako Unibertsitateko (Kanada) Ospitaleko Barry Finegan irakaslea kezkatuta zegoen horrekin, eta arropa hobetzeko proiektua abian jarri zuen. Une honetan, amaitzeaz dago proiektua: txaketa berezia diseinatu dute, eta hainbat proba egiten ari dira harekin.



WWW.SAN.GVA.ES

Hirietan pilatzen den beroa gutxitzeko, pintatu teilatuak zuriz

Koloreak, askorentzat, estetik elementu hutsak baino ez dira. Baina koloreen arabera, materialek beroa xurgatu ala islatu egin dezakete. Hala, teilatuak zuriz margotuz hiriak freskatu daitezkeela adierazi berri du iker-tzaile talde batek. Modu horretan beroketa globalaren ondorioetako batzuk arindu daitezke.

<http://ttiki.com/11693> (Gaztelaniaz)

Milioi bat dolar arazo matematiko bat ebazteagatik

Fundazio estatubatuar batek milioi bat dolarreko sari bana ematen du zazpi enigmako zerrenda batetik bakoitza ebazten duenarentzat. Orain dela gutxi, Grigori Perelman errusiarrak Poincaré-ren konjetura ebazteagatik lortu du sarie-tako bat.

<http://ttiki.com/11695> (Frantsesez)

Gure galaxiako zirru harrigarriak

Planck behategi espazialak bidalitako irudi batzuen bidez, eguzkiaren inguruan dauden zirruak –hau da, gure zeruan ikusten ditugun laino luze bezain finen antzekoei– buruzko datu berriak lor daitezke.

<http://ttiki.com/11696> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Nire onetik hobera

LUISA-BELARRA, *Aloisya citrodora*, lo-eragile... Etxeko ekialderako ate-bazterrean bizi den alea hostajea berritzen hasi da, sasoi berrirako janzten. Hegotik etorritako bero zaharrari men egin eta puntta berriak lehertu ditu; Luisaren poz honi zor ote dizkiot, bada, azkenaldiko lo-putzu sakonak? Ala izerdi berritzeari, neronenari. Beharbada, bero zahar honi... Izan ere, hego haizea baino zaharragorik ba al da?

Luisa-belarra usainzaleon altxorra da. Hostoen limoi-usain freskoagatik ezaguna bada ere, gutxik igarriko luke lore-mordo xuriena, fina goxoa samurra... Loreona perfumetan ez bada, jasotzen zaila da. Hostoena bai erraza. Udako beroenean, ilargia goienean denean, gaua argi-azkorria erditzean hiltzen denean, hostoak bildu eta haizeberritzen den toki ilun eta lehor batean jaso. Meheak

izaki, aise ihartuko dira. Gero, ukitu ordurako limoia ekarriko dizu sudur-mintzetara. Eskuetan kras-kras lauskitzen baduzu, lurrin ederra mintzetatik barrena odole-
ra, nerbioak dantzan jarri eta burua jango dizu; eta erne, zeure onetik atera eta zeure hobera eramateko gai da. Uummmm...

Esan dinat, Luisa, neuk egusentira aldeko etxeko horman haut, eta hosto lehorrak etxean nonahi. Hire izena, Espainiako Karlos IV.a zenaren emazte Italiako Parmako Maria Luisari zor dion. Luisa hark Baionan galdu zinan erregetza Napoleonen mesederako. Ez zuan asko usteko ehunka urte geroago landare batean mendeku hartuko zuanik. Espainia eta Frantzia arteko guda giro hura ez dun baretu. Frantsesek berentzat nahiko luke ten landareari, Luisa hura ohoratzen duen *Aloisya* izen zientifikoa jarri zaio.



Parmako Maria Luisa. Hari zor dio izena luisa-belarrak.



JAKOBA ERREKONDO

Ezpain horiak

Horiz pintatzen ditu udaberriak putzuen ezpainak. Pinudietako gurdi-bideetakoak, batik bat. Udaberriko lehen beroekin irekitzen ditu loreak pinuak eta haiek polena askatzen dute. Polen horrek lore arretik emerako bidea egin behar du. Aire polenez asebetetzen da, lagun batzuen arnasa okitzeraino gogaituz. Gaueko ihintzak edo euri pittin batek polen hori lurrera jausten du, ura ibili den mugetan arrasto hori politak margotuz.

44 eta 1.490

Egur arinena eta trinkoena, metro kubiko egurraren pisua kilotan. Arinena Kubako *Aeschynomene hispida*, 44 kilogramo besterik ez, eta trinkoena Hegoafrikako *Olea capensis*, 1.490 kg. *Guinness Book of World Records* liburuan jasotako errekorrak dira, baina lasai, luze gabe trinkoago edo arinagoren bat azalduko da. Komeni zaie...



Olea capensis, Guinness liburuaren arabera egurrik trinkoena daukan landarea.

WWW.NEUPANT.CO.ZA

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

O.K. Corraleko hasiberriak

TOMBSTONE, ARIZONA (AEB), 1881EKO URRIAREN 26A. Arratsaldeko hirurak inguruan AEBetako duela basatiena eta ezagunena gertatu zen O.K. Corral ukiuluaren aurrean. Aurrez aurre, Mendebaldeko pistoladun azkarrenak eta zehatzenak: zintzoen bandoan, Wyatt, Virgil eta Morgan Earp anaiak eta John Holliday; gaiztoen artean, berriz, Ike Clanton, Billy Clanton, Tom McLaury, Frank McLaury eta Billy Claiborne. Nola ez, legearen eta ordenaren ordezkariak gaizkileak menpean hartu zituzten eta Wyatt Earp, tiroketatik zauririk gabe irten ondoren, heroi bihurtu zen. Edo horixe kontatu digute, behintzat, gertakaria hizpide izan duten film gehienek: *My Darling Clementine* (1946), *Gunfight at the O.K. Corral* (1957), *Tombstone* (1993), *Wyatt Earp* (1994)...

Baina errealitatea oso bestelakoa izan zen. Hasteko, tiroketa ez zen gertakariari izena eman zion ukiuluaren parean izan. O.K. Corralen atzealdean izan zen, Fly's ostatuaren, argazki estudio baten eta McDonald laborategiaren artean, eta Fremont kalean amaitu zen.

Alderdi sakonagoetara joz, zintzoen eta gaiztoen arteko borrokaren atzean lehia konplexuagoa dago. Earp anaiak Tombstoneko aguazilak ziren eta, zentzu horretan, egia da legearen ordezkariak zirela. Eta arerioek zenbait delitu burutu zituzten, ganadu lapurretan ari-tuak ziren. Baina ez dirudi gaizkileak Tombstone gorrotatuak zirenik, besteak beste Johnny Behan sheriffaren babesa baitzuten. Herritar askoren ustez, aguazilak herriaren interesen aurka eta beren onurarako legea inposatzen zuten arrotzak ziren. Zenbait historialarik aurreko belaunaldiak bizitako Gerra Zibilaren arrastoak ikusi ditugatazka honetan; earptarrak gerra irabazi zuten yankee-en oinordekoak lirakeke, eta besteak konfederatuen bandokoak.

WWW.THEMOVIEDB.COM



Gunfight at the O.K. Corral (1957) filmaren afixa. Benetako tiroketak ez zuen zerikusirik westernetan ikusi ditugun eszenekin.

Bestalde, tiroketaren bederatzi protagonistak ez ziren inola ere westernek erakutsi dizkiguten tiratzaile trebeak. Virgil Earp eta Billy Claiborne ez beste guztiek, orduko hartan hartu zuten lehen aldiz parte tiroketa batean. Gainera, Claibornek ez zuen bere esperientzia erabili, tiro bat bera ere bota gabe ihes egin baitzuen duelutik. Ez dago garbi nor izan zen sua hasten lehena, baina 30 segundo ingurutan 30 tiro bota zituzten. Tiratzaileen abilezia eskasa kontuan hartuta, Wyatt Earpek zauririk ez izatea ez da miraria. Harritzekoagoa da McLaury anaiak eta Billy Clanton hil izana eta Morgan Earp, Virgil Earp eta John Holliday zauritu izana.

Baina halako ikuskizun tamalgarriak ez luke ondo emango zinema pantailetan.


Arrastoak

Musika kataroa berreskuratu dute

JORDI SAVALL musikari katalana buru duen talde batek katarok bost mendetan sortutako musika berreskuratzeko ahalegina egin dute. Eraitza, *Le Royaume Oublié* (Erresuma ahaztua) izenburuko bilduma, berriki kaleratu dute Aliavox etxearen eskutik. Orain artean kataroen musika arrasto gutxi batzuk baino ez ziren gordetzen, baina Savallen lantaldeak horiek bildu, osatu eta hiru CDz osatutako bilduma paratu dute.

Diskoekin batera Erdi Aroko mugimendu heretikoaren historia ere jasotzen du argitalpen honek. Testuak zazpi hizkuntzatant daude; besteak beste, okzitanieraz.

WWW.CLASSICTOLOUSE.COM



Le Royaume Oublié musika katarari buruzko bildumaren azala. Jordi Savall katalanak zuzendu du lan hau.

«Poliki, baina ate bat irekitzen ari da ezker abertzalean»

Getxo, 1974. Lokarri-ko koordinatzailea da. Azken bake prozesuaren porrotak ezintasun handia sortu zuen gizartean. Akordioaren eta kontsultaren aldeko herritarren sareak lanean dihardu halere. Prozesu berria sortzen denerako bitartekoak lantzen ari da, gizartearen babesa izateko.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

Teknologia berriek gune berriak sortu dituzte jendeen harremanetarako. Halaxe ere Lokarri-n. Bai. Elkarri eratu zenean bilerak modu ia bakarra ziren pertsonen harremanak eta parte-hartzea bideratzeko. Egun, aldiz, hainbat modu dago gizarte sareak ahalbidetzeko. Internet berebiziko tresna da informazioa zabaltzeko eta kolaboratzaileekiko harremanak sustatzeko.

Lokarri, agian horregatik, gaur egun gutxiago agertzen da hedabideetan?

Horregatik eta iaz oso erabaki zorrotza hartu genuelako. Hau da, ohiko hedabideen bitartez mezuak ez zabaltzea erabaki genuen, edo horietan ez hainbeste agertzea behintzat. Erabaki guztiz egokiak hartzea ez da erraza, baina kasu honetan, ordainetan, geure sare soziala are gehiago lantzen eta indartzen ari gara.

Zeure blogak segimendu dezente du, antza.


Teknologia gustukoa dut eta apur bat trebatu naiz. Sare soziala osatzen dugun jende arteko elkarrizketa lantzeko oso aproposa da Internet. Twitter eta Facebook tresna paregabeak dira elkar aditzeko. Lokarri-ren filosofia, entzutean eta hitz egitean oinarritzen da, beraz, eremu hauek lantzea ezinbestekoa da guretzat.

Lokarri-ren zereginetako bat herri galdeketa lantzea izan da. Zer eman dizue esperientziak?

Kontsulta gure ekimen nagusietako bat izan da, ez da egitasmo bakarra halere. Kontsulta, dena den, aurreko Eusko Jaurlaritzak bereganatu zuen Ibarretxe lehendakaria buru izaki. Hedabideek Lokarri herri kontsultarekin lotu zuten zeregina berea bakarrik balitz bezala, baita, ondorioz, Jaurlaritzarekin lotu ere. Hedabideek kontsultaren inguruan zeuden alde ahulenak azpimarratu zituzten eta ondorio ezkorren zama guri leporatu. Lokarri nabarmen geratu zen eztabaidaren erdierdian. Horrek, gerora, eragin handia izan du gure informazioa hedatzeko moduan, geure tresnak erabiltzeko orduan.

Lokarrik sustatu eta Jaurlaritzak ahalbidetu nahi izan zuen kontsultak zapore garratza utzi zizuen.

Iraganeko gure huts egiteen artean kontsultaren kudeaketa eskasa dago. Auzitegi Konstituzionalak kontsulta debekatuko zuela bagenekien. Bagenekien zerbaitek gehiago egin beharko



Paul Rios



“Ezker abertzalearen jarreraren sinesten dut, aldiz, ETaren jarreraz ez dut iritzi bera”.

genukeela, baldin eta herri kontsulta egingo bazen. Baina, egia esan, ez genuen ondo planifikatu kontsulta ez egiteak izango zuen ondorio txarra. Ardura nagusia kontsulta bultzatu zuten alderdiena izan beharko zuen. Guk proposatutako ekimena izanda ere, ardura guztiona izanda ere, porrotaren parte handiena ahalmen gehiago dutenek jaso behar zukeen. Zoritzarrez, ondorio txarrenak ahulenean jasotzen dituzte.

Egun zertan da kontsultaren gaia?

Gaia presente dago betiere. Eskozian datorren urtean egin nahi dute. Hemen ere hainbat saio egin dira zenbait gai buruz: Usurbilen, hondakinen inguruan; AHTri buruz; Batera-ren kontsulta bestalde... Herri kontsulta lantzen ari da, ariketa demokratikoa baita. Kontsulta guretzat ez da aurreko Jaurlaritzak proposatu zuen gaiaren —bakerako bidea zabaltzeko— inguruan landu beharreko zeregina soilik. Herri galdetara proposamen demokratikoa da. Demokrazian bizi gara, baina nahi badugu berau hobetu funtsezkoa da gizarteari galdetzea gura eta behar duenari buruz.

Bake prozesua eta kontsulta elkarren ondoan doazen ekimenak dira, beraz. Nolabait. Izan ere, beste bake prozesu bat abiatzen bada, modu batean edo bestean, kontsultaren ariketa landu beharko da ezinbestean. Lokarri-k, behar izanez gero, kontsulta

egitea proposatzen du hasiera beretik, ez prozesuaren bukaeran. Esaterako, egokia izanez gero, gizarteak esan dezala ea bake prozesua lantzea nahi duen. Galdetu diezaiozun printzipioez, abiapuntua indartsua izan dadin hasieratik beretik, gizarte prozesuari lotuago egon dadin. Prozesuan zalantzazko uneak izango direnez, beharrezkoa bada, galde diezaiozun gizarteari zer nahi duen.

“Oker dabilena Ares da, uste ustel batetik ari baita. Aresen uste du Brian Currin bitartekari aritzeko premisarekin etorri dela”

Bake prozesuaren zutabeak sendoak izan behar dute, printzipio argiak eta sendoak finkatzen badira, prozesua bermatuago izango da. Printzipioak ongi gizarteratuak izanez gero, prozesuan inplikaturako eragileek ez dute hain erraz atzera egingo.

Prozesua hizpide, egiguzu Zutik Euskal Herria adierazpenaren balorazioa. Hiru hitz azpimarratuko nituzke: unilateraltasuna, irrebertsibilitatea eta errealismoa. Hiru puntu horiek —oso azpimarragarriak— hauxe iradoki didate: inoiz baino konfiantza gehiago daukat ezker abertzalearen hitzetan, aldeztu aurretik urrats unilateralak emateko prets dagoelako. Besteek zein urrats emango duten itxaron

gabe, urratsak emateko prets dagoelako. Hori funtsezkoa da ezker abertzaleak deitzen duen prozesu demokratikoaren bidea egiteko. Bigarrenik: Mitchell printzipioekin bat egiten du, alegia, atzeraezinezko prozesuan —aurreko prozesuan ez bezala— sartzeko borondatea adierazi du. Elkarriketen bilakabidea baldintzatzeko biolentziaren erabilpenari uko egin badio, onartu du ezin dela biolentzia egoerara itzuli. Hirugarrenik: ariketa oso errealista da, orain ez dago aukerarik prozesu demokratikoa gauzatzeko, baina oinarriak jartzeko lan egiteko prest gaude.

Horiek horrela, iritzi bera duzu ETak jendarmea hil izan ostean, ezker abertzaleak agertu duen jarreraz?

Lokarri-ren planteamenduen arabera, ezker abertzalearen azken komunikatua adierazi duena ez da nahikoa. Guk ezker abertzaleak ETari su-etena eskatzea nahi dugu, baldintzarik gabekoa eta egiaztagarria, ezker abertzaleak bake prozesuaren gidaritza izan dezan, eta ez ETak.

Irlandan izan zen modura edo.

Bai. Irlandan Sinn Féinek hartu zuen gidaritza, prozesuaren liderazgoa hartu zuen. Ezker abertzaleak gauza bera egin behar du, gure ustez. Hala ere, azken komunikatua nahikoa ez bada ere —analista politikoaren ikuspuntutik, demagun—, ateak zabaltzen ditu urrats berriak eman daitezten.

Zein da ezker abertzalearen zeregina une honetan, zure ustez?

Ezker abertzalearen helburu behinena prozesu demokratikoan parte-hartzea da beste eragileen baldintza berberetan. Eta hori emango bada alderdi legezkoa izan behar du. Alderdien Legeak eskatzen dituen betekizunak urratzeko bide bat bilatu behar du. Ezker abertzaleak badaki legalak izateko urrats garbiagoak eman behar dituela biolentziaren auzian. Azken komunikatuan dioenez, ETak konpromisoa hartu behar du eta urratsak eman norabide horretan, baina baita gobernuek ere. Poliki-poliki bada ere, ezker abertzalea ate bat irekitzen ari da gaiaren inguruan, gero eta argiago ari da. Ez dela nahikoa? Gizartearen gehiengoarentzat jarrera ez da guztiz itxaropentsua, alderdi gehientzat ez da nahikoa, baina ate irekitze hori oso inportantea da.

Gobernuek ere urratsak eman behar dituztela dio ezker abertzaleak.

Adibidez, Jon Anzaren kasua orain dagoen bezala geratzen bada, Frantziako Gobernuaren jarrerak ez lituzke giza eskubideak bermatuko. Batzuek diote: “Zergatik ETak eta ezker abertzaleak eman behar dituzte urratsak, gobernuek beren jarre-rei eusten dieten bitartean?”. Tama-lez baina, horrela pentsatuz gero, ezker abertzalearen urrats unilatera-laren asmoa deuseztua geratzen da. Horrela jokatzuz gero, argi eta garbi esan behar da, Espainiako eta Frantziako gobernuek irabazten dutela. ETarekin bide polizialez amaitu daitekeelakoan ari baitira.

Orduan?

Orduan, nire desioa da ezker abertzalea ez dadila horrenbeste arduratu gobernuen aldaketetz, aitzitik, egin dezakeen bidea urra dezala, bidea beste modu batez jorratu dezala gobernuen jarrerak aldarazteko. Hori da ezker abertzalearen erronka.

“Ezker abertzalea ez dadila horrenbeste arduratu gobernuen aldaketetz, aitzitik, nire desioa da bidea beste modu batez jorratu dezala gobernuen jarrerak aldarazteko”

Prozesu berri bat abiatuko balitz non lirateke gakoak?

Aurreko prozesuaren porrotak erakutsi digu gatazka eraldatu behar dela. Berau ebaztera pasa aurretik, eraldatu behar dela, parametro errealistetara eraman behar dela. Hau da, eragileen arteko baldintza antzekoak izan behar dira, biolentziaren presiorik gabe, eta batez ere, prozesuan berean sortzen diren zailtasunak gainditzeko mekanismoak prest izan behar direla. Lan horretan ari gara, bai Lokarri eta bai beste eragile batzuk ere.

Bake prozesuetan aritua den Brian Currin ari da gurean ere. Zer azpimarratuko zenuke bere jardueraz?

Hasteko hau argitu nahi dut: Brian Currin ez da bitartekaria, prozesuan dauden zailtasunak errazten dituen

pertsona baizik. Rol hori jokatu du lehenago eta orain ere ezker abertzalearekin arlo hori lantzen ari da. Estrategia bat ari da diseinatzen ezker abertzaleak prozesu demokratikoan baldintza berdinetan leku izan dezan. Hori da bere lana. Ezker abertzaleak dituen arazoak antzeman ditu. Espainiako Gobernuaren aldetiko keinu baikorrak lortzeko bideak ere ari da lantzen, gatazka eraldatzeko beharrezkoak izan daitezkeen urratsak ematen lagundu nahi du. Hitz bitan, ezker abertzalearentzako baldintza egokiak finkatu nahi ditu etorkizuneko prozesuari ekiteko.

Rodolfo Aresen ustez, Brian Currin oker dabil ordea.

Oker dabilena Ares da, uste ustel batetik ari baita. Aresen uste du Brian Currin bitartekari aritzeko premiarekin etorri dela. Aresen eta beste askok ez dute ulertzen Currin ezker abertzalearekin kolaboratzen ari dela etorkizuneko estrategia definitzeko, gatazka eraldatzea bilatzen duela, irtenbiderako eszenategia eraiki nahi duela. Tira, eta oker badago, zer? Ez al da okerrago oraingo egoeran segitzea?

Aberri Eguna heldu da. Urrats berri-rik emango al da prozesuaren abiapuntuko ateak gehixeago irekitzeko?

Nik ezker abertzalearen jarreran sinesten dut, aldiz, ETaren jarreraz ez dut iritzi bera. Ez dut ikusten ETA armak behin betiko uzteko moduan, ezta su-eten iraunkor bat emateko ere. Urrats berriak eman daitezke, baina izatekotan ezker abertzalearen aldetik emango dira, ez ETaren aldetik. ■



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



**Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua**

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuflaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Marleen Haboud

Hizkuntzalaria. XXI. mendeko naturalista

«Hizkuntza galtzean ez da den-dena galtzen»

Naturalistak nola, hala arduratzen da Haboud Hego Amerikako hizkuntzez. Jakin-minak elikatzen du, ikerlari senak gidatzen du eta aniztasunarekiko konpromisoak lotzen du. Ekuadortarra Europa aldean zebilela, Garabide elkarteak Euskal Herrira gonbidatu du. Euskararen herriko oihartzunarekin itzuli da, elkarlan haziak ereitera.

NEKANE GOIKOETXEA

Argazkiak: Iñigo Azkona

Haboud irakaslea, ikerketa soziolinguistikokoan aditua zaren aldetik, deskriba gaitzazu. Zer kontatuko diezu ingurukoei itzultzean?

Oso ongi pasa dudala esango diet aurrenik. Interesgarria izan da zuekin hitz egitea eta gure herrian ditugun hainbat egoeraren oihartzuna entzutea. Kontatuko diet zuek egiten diharduzuen hizkuntz normalizazio lana iraunkorra eta sakona dela, eta arrakastatsua dela jendeari barrutik ateratzen zaiolako, hizkuntza maitatzetik hasten delako. Elea-niztasun egoerak ditugun herrietan, hizkuntzak galtzen ari direla ikusten



“Gaztelaniazko hainbat termino nola ‘kitxuat’ diren aurkitu dut, nola birsortu diren hainbat hitz. Mundu berriak aurkitzen dituzu, gozamen hutsa da hori!”.

dugula, berreskuratu egin behar dugu indar hori, hizkuntzaren esanahia bera eta gutako bakoitza hizkuntzaren bitartez garena.

Arretagune asko izan dituzu: hizkuntzalaritzan doktore, Andeetako antropologian aditu, soziolinguistikan eta etnolinguistikan aritu zara. Zein seme-alaba maite duzu gehien?

Zaila da esaten. Nik uste dut seme-alaba bat baino gehiago dituzunean denak maite dituzula, baina arrazoi ezberdinengatik. Dena lotuta dago. Esate baterako, soziolinguistika arloan ari zarela ezin zara identitate-zein kultura-kontuez ahaztu. Denak maite dituzu. Une jakin batean batengana hurbiltzen zara gehiago, seme-alabekin bezala. Batzuetan buru-belarri aritu izan naiz ukipen egoeran dauden hizkuntzen analisi morfosintaktikoak egiten. Kanpotik begiratuta, irudi luke ikerketa hotza dela, soilik linguistikoa, baina benetan oinarrian hizkuntzen negozioa-moduak ikertzen zabilta, hiztunen arteko elkarreraginak. Itxuraz gordina den bidea hartuta ere, ukipen egoeren errealtatera iristen zara, hizkuntzen, kulturen eta identitateen arteko harremanetara. Eta baita alderantziz ere, orain komunitate indigenetako pertsonekin ikerlan soziolinguistikoa egiten dihardudala, pertsonak elkarriketatzen ari naizela, hizkuntz forma txundigarriak aurkitzen dituzu. Dena lotuta dago.

Indigenismoa bazterketaren sinonimoa da? Zein balorazio egiten duzu terminoaz?

Uste dut perspektiba eta ikuspuntuaren baitakoa dela balorazioa. Gaur egun indigenismoa berezko komunitateak ikertu eta sustatu nahi dituen kanpo eragileen tendentziarekin lotzen dugu, ikuspegi paternalista duten eragileekin. Baina uste dut bere garaian bazter-

Nor da Marleen Haboud

- Ekuadorreko Quitoko PUCE unibertsitateko irakasle eta ikerlaria.
- Hizkuntzalaria, hainbat arlotan aditua: soziolinguistika, etnolinguistika, komunikazioa...
- Andeetako hizkuntzetan aditua.
- Unescoren kolaboratzailea da galzorian dauden hizkuntzen atlasaren egitasmoan.
- Garabide elkartearen solaskidea: www.garabide.org helbidean Garabidekoekin izandako elkarriketa luzearen kontakizun mardula dago.

keta-egoerak kanpotik ikusi eta ikusarazteko balio izan zuela. Ni, paternalismoa hor badago ere, bere garaian izan zenarekin gertatzen naiz, bere ondorio positiboekin, balio izan baitzuen indigenen ahotsa entzuteko.

Kulturartekotasunaz: "Urruti gaude horretatik. Eztabaida intelektualetan geratzen gara, batetik, eta bestetik, minorizatuok soilik ikasi beharreko lezioa bihurtu da. Gorreri bisuala!"

Nola bizi dute beraiek terminoa?

Esparru intelektualean arbuia egiten da, baina esango nuke azkenaldian etapa hasi bere garrantzia aitortzen hasiak direla, susperraldi bat ekarri zien komunitateei eta populazio dominatzailea ohartarazteko balio izan zuen ere.

Zure lanen artean badira soziolinguistika eta generoa lotzen dituztenak, soziolinguistika arloa emakumeen lidergoarekin lotu izan duzu. Zein da emakumeen rola?

Emakumearen rola oso garrantzitsua izan da komunitateetan. Batzuetan ez dugu hori kanpotik behar bezala ikusi. Kanpoko begiz, itxuraz gizonak dira komunitatearen pisua daramatenak, baina barruko begiz ikus liteke emakumeak direla familietan erabakitzen dutenak gero gizonak esparru formalean antzeztzen dutena. Komunitateen orekak emakumeek gordezten dituzte egiaz.

Marleen, zure ekarpena kanpoko da baina, aldi berean, barrukoa da. Gaiak maitemindu egin zaitu.

Berezko hizkuntzen alde borrokatu dut, ez ikerketa-gai soil bezala, nire bizitza gidatzen du gaiak. Ez dakit zein den benetan nire ekarpena baina egiten saiatu naizena, nire ikasleei transmititzen saiatu naizena bene-benetan egin dut. Benetan sentitu egin nahi dut hizkuntzekin, hiztunekin gertatzen ari dena. Batzuetan esaten dut: "Guk hau eta bestea"... "Nola gu?", esaten didate, "zu ez zara indigena!" Ez eta bai! Nik prozesu hau barrutik bizi izan dut. Ezin dut irudikatu nire bizitza prozesu honetatik kanpo, nire bizitzaren parte da. Nik hizkuntzalaritza egiten dut, edo hezkuntzan dihardut edota hausnarketa hutsean aritzen naiz, baina hor nago! Pentsatzen dut nire familiak eragina izan duela horretan. Familia kulturantz, eleanitza, identitatean itza izan nuen. Hizkuntza ezberdinen hotsak entzuten, gozatzen ikasi nuen. Egiten dudana ikerketa jendearengana itzultzea nahi nuke, beraientzat baliagarria izatea.

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure!
artean!
euskaraz



BFA
DFB

Hizkuntzen galera dokumentatzen diharduzu, hiltorian dauden hizkuntzen gaineko kanpo lana egiten duzu. Nola bizi duzu emozionalki prozesu hori?

Emozio handiz. Izan ere, hitz bat galtzerakoan, ez da hitz soilak galtzen. Demagun landare izen bat galtzen dela, horrekin galtzen da landareari buruzko ezagutza, haren historia, eta jendearen landarearekiko harreman modua, haren mundu ikuskera. Beharbada, hizkuntza bat galtzean, beste hizkuntza batera iragazten dira ezagutza batzuk, baina ez denak. Gogorrena da ezin duzula ezer egin; bildu eta artxibatu museologikoki. Batzuetan gogorragoa da kanpotik, ikuspegi orokor batetik ikusten duenarentzat. Hala ere, egia da bidean gauza interesgarriak aurkitzen dituzula, bizi-biziak. Gaztelaniazko hainbat termino nola “kitxuatutu” diren aurkitu dut, nola birsortu diren hainbat hitz. Mundu berriak aurkitzen dituzu, gozamen hutsa da hori! Hitz baten atzean negoziatzen

zio identitarioak daude, ukipen egoeren mugimendua. Gizakiok ere horretan dihardugu, ukipenetara egokitzen etengabe.

Euskaldunok hizkuntza jartzen dugun lekuan zuok kultura jarri ohi duzue. Ados zaude?

Beno, kultura hizkuntzaren bitartez transmititzen dela esaten dugu, baina ez soilik. Kulturaren transmisioan jarrerak, keinuek, ekintzek, bizitzeko moduek, hiltzeko moduek, bizitza ulertzeko manerak eragiten dute. Hizkuntza izanik ere transmisio-biderik garrantzitsuena, hizkuntza galtzean ez da den-dena galtzen. Badira hizkuntza aldatuz bizirauten jarraitu duten kulturak.

Kitxua (kichwa) eta shuar hizkuntzak, gaztelaniarekin batera, ofizialak dira Ekuadorren. Zeintzuk dira beren aukera eta mehatxu nagusiak?

Gaztelania da hizkuntza nagusia, komunikazio-testuinguru guztietan erabiltzen dena. Beste bi hiz-

kuntzen ofizialtasunak esparru eta aukerak ekar ditzake, baina ekitea da garrantzitsuena. Horretan kitxuak gehiago aurreratu du, Sierra inguruan (Andeetan) kitxua izan da hizkuntza indigena nagusia. Ofizialtasunarekin bizi mantendu nahiko genituzke baina hori, eragin ezean, ez da lortuko. Horren adibide dugu Peruko kitxuarekin gertatutakoa: 70eko hamarkadatik ofiziala izanik ere, bere bizi-indarra ez da handiagoa. Horretarako beharrezkoa da hezkuntzan, komunikabideetan, esparru publikoan inplementatzea eta, batez ere, belaunaldien arteko ondorengoetartzea ziurtatzea. Bestela, burua moztuko genioke hizkuntzari.

Amazoniako hizkuntza batzuen “kitxuatzeaz” hitz egin izan duzu. Zer dago horren azpian?

Ohikoa da minorizatutako hizkuntzen artean. Hizkuntzek rol eta posizionamendu ezberdinak dituzte. Kitxua hizkuntza minorizatua da Ekuadorren, baina hizkuntza



“Kitxua hizkuntza minorizatua da Ekuadorren, baina hizkuntza indigenen artean, indartsuena. Ekuadorreko hizkuntzak tipologikoki, genetikoki ezberdinak badira ere, beren historia sozialei dagokienez, kulturalki gaztelanitik baino hurbilago daude.”



indigenen artean, indartsuena da. Tipologikoki oso hizkuntza ezberdinak dira kitxuatzen ari direnak, baina nazionalitate batzuk, andoak edota sáparak, hizkuntzaz kitxuatzen ari dira. Hizkuntzak tipologikoki, genetikoki ezberdinak badira ere, beren historia sozialei dago-kienez, kulturalki gaztelaniatik baino hurbilago daude. Gaztelania badakite, noski, baina beren identitate ezberdina mantentzeko kitxua hizkuntza aukeratzen dute, beren hizkuntza propioak hilzorian baitaude. Liluragarria da, baietz!

Kritikoa zara Ekuadorreko hezkuntza eredu elebidunekiko. Zergatik?

Uste dut oraindik ez dutela ekarpen handirik egin. Uste bat dago horren atzean, alegia, hezkuntza formala hizkuntza nagusian eman behar dela, arriskutsua dela bestelako apustua egitea. Bizitzan aurrera egiteko aukerekin lotuta dago. Jarrerak gehiago landu behar ditugu. Esate baterako, komunitate askotan ez dakite beren hizkuntzak idatz daitezkeenik; harritura gertatzen dira idatzita ikusten dituztenean. Hori da abiapuntua.

Hiztun gaztelaniadun elebazarren jokaerak batzen gaituzte. *Sordera visual* (gorreri bisuala) kontzeptua erabiltzen duzu zuk. Zer esan nahi duzu?

Hizkuntzalaritza ikasten ari ziren 5. mailako unibertsitateko ikasleei galdetu nien behin ea zenbat hiz-

“Benetan sentitu egin nahi dut hizkuntzekin, hiltunekin gertatzen ari dena.

Batzuetan esaten dut: ‘Guk hau eta bestea’... ‘Nola gu?’, esaten didate, ‘Zu ez zara indigena!’ Ez eta bai!”

kuntza hitz egiten ziren Ekuadorren. “Gaztelania!”, erantzun zidaten aho batez. Bakarrik? Galdegin nien nik. Beno, batzuek ingelesa hitz egiten dutela erantzun zidaten eta bakarren batek kitxua ere hitz egiten dela erantzun zuen. Ekuadorren hamahiru hizkuntza hitz egiten dira. Nik jarrera horri gorre-

ri bisuala deitzen diot. Alegia, ikusi nahi ez dugunaren aurreanitsu eta gor bihurtzen gara. Minorizazio egoeran bizi garen guztion gaitza da hau.

Mundu guztiak kulturartekotasunaz hitz egiten du, ordea...

Modaren eraginez hitz egiten dugu, baina ez dugu adiera ulertzen eta batez ere ez dugu praktikatzeko. Desberdindu egin behar ditugu kulturantzatasuna, kultura ezberdin asko egotea, eta kulturartekotasuna. Bigarrenak, beste kulturak ezagutzea, ulertzen saiatzea eta errespeta- tzeke konpromisoa dakar ezinbestez. Urruti gaude horretatik. Eztabaida intelektualetan geratzen gara, batetik, eta bestetik, minorizatuok soilik ikasi beharreko lezioa bihurtu da. Hor dago gakoa! Gorre- ri bisuala! ■

argia.com Kitxua eta shuar hiztunen lekukotzak:

Kitxua: vimeo.com/8326992 eta vimeo.com/8715164

Shuar: vimeo.com/8757859

Ekuadorreko hizkuntzak:

www.puce.edu.ec/oralidadmodernidad



MICHELENA

Igor Calzadak HPS utzi du

ZUZENDARITZA postua zuen Igor Calzadak Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan. Zuzendaritza karguan urtebete egitera ez da heldu Calzada.

Lexikoaren Behatokia sarean

EUSKALTZAINDIAK zintzilikatu du Lexikoaren Behatokia bere webgunean. Behatokiaren helburua da ikerketarako eta kontsultarako testu corpora prestatzea. Corpora osatzeko hainbat komunikabiderekin egin ditu hitzarmenak: ARGIA, Berria, EITB eta Deiarekin. Heda-bide horietako testuak erabiliko ditu Euskaltzaindiak, batetik, corpora osatzeko, eta bestetik, hedabideok Euskaltzaindiaren arauak nola barneratzen dituzten ikusteko. Hiztegi Batu Oinarriduna ere jarri du sarean.

Gazte gipuzkoarren pertzepzioak

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK inkesta (*Hizbegia*) egin du 15 eta 30 urte arteko gipuzkoarren artean euskararekiko eta gertuen dituzten beste hizkuntzekiko dauzkaten iritzia eta jarreraz. Gazte askok aipatu dute euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesaren aldean zaila dela eta politizatua dagoela. Gaztelania jo dute hizkuntza praktikoa eta beharrezkoentzat. Aldiz, askok uste dute euskarak izango duela gorakadarik handiena gizartean eta erabileran. Kontraesanak helduek bezainbeste dituztela esango nuke.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

La Naval: espekulatzeko operazio berria?

ELAko sindikalistek alarma jo dute. Sestaoko La Navaleko erregulazio espedienteak, enpresa behin betiko ixteko lehen pausoa litzatekeela diote, edota gehienez ere, 100 edo 150 langilerentzako ontziola izango litzateke. Gaur egun 415 langile ditu eta beste 1.200 dabilta enpresa laguntzaileetan. Bere lurrekin espekulatzeko egingo den operazioaren bezperan egon gintezke, edo hizkera arruntean esan ohi den bezala "pelotazo urbanistiko" baten atarian. Sestaoko La Navalek hainbat fase izan ditu eta orain arte ontziola bezala jarraitu izan du lanean. Azken pausoa 2005eko pribatizazioa izan zen. Construcciones Navales del Norte (CNN) elkarte pribatuak lortu zuen, CCOO eta UGTren babesaz, ontziola bereganatzea hiru milioi euroren truke. Hiru urtean 36 milioiko onurak izan zituen, soilik SEPI enpresa publikoak utzitako lan karga ateraz. Kontratu falta aitzakia hartuta, enpresak erregulazio espedienteak mahai gainean jarri du orain, eta ELA sindikatua horren kontra azaldu da.

Administrazioko arduradun politikoek, erregulazio espedienteak onartzeko orduan, kontuan izan behar lukete espekulatzeko aukera hori. Ondo begiratu beharko lituzkete egin daitezkeen maniobrak, 2012ko abenduan jabeek ontziola itxi baitezakete eta pelotazo urbanistikoa antolatu. Ez litzateke lehenengo aldia izango Ezkerraldean. Hor daude AHV, BW edota Sefanitro-Fertiberiako itxierak. Orain merkataritza gunerandi, supermerkatu, etxebizitza eta aisialdirako zentroak daude lur horietan. Pribatizazio akordioaren arabera, 2012ko abenduaren 1etik aurrera ontziolaren jabeek eskuak libre dituzte nahi dutena egiteko bere etorkizunarekin. Ondorioz, sindikatuak, langileak eta administrazioak kontuz ibili beharko lukete, CNN elkarte pribatuaren mugimenduei adi.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Maria Jesus Aranburu Gipuzkoako Euskara diputatuak Berrian esanak: "Ezinbestekoa da lidergoarena ere. Klusterrarekin daukagu Eralan programa, horretarako. Foru Aldundian hiru lan taldetan ari gara lanean, sindikatuak, teknika-riak eta politikariak, eta apirilerako konpromiso batzuk adieraziko ditugu. Eta ezin dugu ahaztu masa kritiko bat behar dela euskaraz hitz egin ahal izateko. Euskarak horren presentzia nabarmena ez duen eremuetan sortzen ari gara eremu txikiagoak, euskararekin identifikatuko direnak, arnaguneak. (...) Esan behar dut Jaurlaritzarekin geldialdi nabarmen batean gaudela. Ez dago lehen genituen bezalako bilkurak, ez dago lehen geneukan koordinazio agenda... Nahiko geldi ikusten dugu Jaurlaritza, eta hari dagokio gidari izatea".

Lourdes Oñederrak Deian esanak: "Euskararen garairik onenak, jendearen militantziaren aldetik, joan zaizkio eta bide berriak bilatu behar direla uste dut. Hala ere, hizkuntza inoiz baino hobeto dago, Euskal Autonomia Erkidegoan behintzat, inoiz ez ditu izan orain dituen baldintzak".

XABIER LETONA

MALTZAGATIK

Lan errentak handitzea, horra nazio estrategia

JON HERNAEZ / ARGAZKI PRESS

MAYOR OREJAK, akaso badu arrazoi punturik Zapatero eta ETAr buruz esan dituenetan. Ez konplizeak diren horretan, jakina, elkar ordezkatzeko dutenaren aurka ari baitira aspaldi, bitarteko ia guztiak erabiliz. Baina ENAMEk eta PSOEk eman beharreko urratsak elkar elika dezaketela, ez da zalantzarik. Ekonomi

krisiak Zapatero nola higatu duen ikusita, PPK irentsi egin dezake 2012ko hauteskundeetan... salbu eta ETak borroka armatua utzi izanaren ondorioz, PSOErekin bideren bat ireki eta Zapaterok euskal gatazkaren konponbidea bere garapenerako baliatzen duen.

Orain egindako Alderdien Legearen erreformarekin ez da samur ulertzen, baina ETak borroka armatua uzten duela baieztatzen bada, denbora kontua besterik ezin da izan Batasuna hauteskundeetan izatea. Eta 2011n? Batek daki, baina zipriztinak ezker abertzaleak askoz harago doaz, Jaurilaritzaren egungo osaketa ikusi besterik ez dago. Nola irentsiko du EAJK, Alderdien Legearen ondorioz diputazioak galtzeko arriskua?

EUSKAL GEHIENGO SINDIKALA

ostera atera da kalera aurreikusten diren lan erreforma eta eskubide murrizketei aurre egitera. Espainiako Gobernuak, aldiz, bere erreformak atzeratu ditu oposizioaren sostengurik ez duelako. Baina, bistan da, ez du atzera egin sindikatuen oposizio gogorragatik, eta pentsatzekoa da Gobernuak pauso bat atzera eman duela, laster batean beste bi aurreratzeko asmoarekin.



Ordurako hobeto saiatuko da lotzen operazioa, bai PPrekin baita sindikatuarekin ere. Eta denak adierazten du zirrikiturik bilatuko duela, batez ere pentsioen erreforman eta jubilazio gaietan, ez baita samurra irudikatzen urteetan posizio erosoan aritu den sindikalismoa bat batean boterearekin aurrez aurre. Ez da garbi zer indarrarekin, baina denak adierazten du Greziako ufadak Espainia aldera ere iritsiko direla; erantzunetan aurreratzeak, etor daitkeenaren aurrean herritarrak kontzientziatzera lagun dezake. Gaurtik hobeto ikusten da iazko maiatzeko greba orokorraren zentzua.

Hego Euskal Herria erakusten ari da estatu mailako protestarako kontzientzia sozialik handiena, eta hori bitxia da, kontuan hartuta Espainiako gainerako lurraldeekin erkatuta askoz ere egoera hobea dagoen eremua dela. Andaluzian langabezia tasa %25etik gora dago eta Hegoaldean %11 ingurukoa da. Ez da etxafuegoak botatzeko, baina bertako ehun ekonomikoaren adierazgarri bai. Baita euskal gehiengo sindikaren ezaugarri desberdinen erakusle ere. Sindikalgintza indartsua dagoen lekuetan, eskubide sozialak ere beste maila batean zaintzen dira, horren lekuko Europako iparral-

deko herrialdeak eta, zehazki, Norvegia.

Azken finean, aberastasunaren banaketarekin jarraitzen dugu orain ere. Eta bitxia da komunikabide nagusien eskutik herritarren gehiengoak zein samur bereganatzen duen gerrikoa estutu egin behar dela. Eta hala egin behar denean egin behar da, jakina, baina ez gezur handien

gainean oinarrituta.

Azken 30 urteetan Europako mendebalean izan den produktibitatearen hazkunde ikaragarriaren ondorioz, langileen errentak ere maila berean igotzea zatekeen logikoa, baina ez. Urte horietan guztietan, eta batez ere urte urte indarrean jarri diren politika neoliberalen ondorioz, proportzioan kapitalaren errentak lan errentak baino askoz gehiago handitu dira; are gehiago, adibidez, ELGAN (OCDE, Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundea) azken 30 urteetan lan errenten proportzioa txikitu egin da estatuetako nazio-errentetan, eta horren ondorioa zuzena da gizarte segurantzari dagokionez, kutxa hauek batez ere soldatapeko langileen diruarekin betetzen direlako. Ekuazioa zehatza da: langileen soldatak behera, gizarte segurantzaren kutxa behera, eta prestakuntza sozialak behera. Hor dago koxka nagusia. Determinismoz itxaron daitke eta gobernuen jokaeraren zain egon, edo zerbait egin liteke, eta orduan serio pentsatu behar da lan errenta horiek nazio-errentetan proportzio handiagoa har dezaten egin beharrekoan. Lanaren behin-behinekotasuna, enpleguaren kalitate eskasa eta soldaten jaitsierak, oro har, kontrako norabidean doaz.

Txina kolonialista: potentzia bilakatu auzokoen lepotik

Pekingo gobernuak lau haizetara aldarrikatzen ditu inguruko herrialdeekin hitzarturik dauzkan mugarik gabeko merkataritza itunen onurak. Walden Bello-k, aldiz, argudiatzen du Txinak estrategia kolonialista tipikoa burutzen duela, metropoliaren mesederako.

ASIA OSOKO ALTERMUNDIALISTEN artean Walden Bello izan daiteke intelektual errespetatuenetakoa. Filipinarra, Manilan 1945an sortua, soziologiako irakaslea da hango unibertsitatean, munduko beste hiri askotan ere irakatsia da eta *Focus on the Global South* webgune erreferentziazkoa gidatzen du. 14 liburu dauzka argitaratuta, tartean *Dragons in Distress* (Dragoi atsekabetuak) 1992ko klasikoa, ordurako famatzen zen *Asiako mirari ekonomikoa* biluzten zuena.

XX. mende amaieratik mundu osoa astindu duen globalizazioak Asia urrunean dauzkan eraginaren ezagutzaile onenetarikoa da Walden Bello. Idatzi dituenetan azkenean Txina Asiako beste herrialdeen artean jotzen duen papera aztertu du: *China's neo-colonialism* (Txinaren neokolonialismoa) darama izenburu *New Internationalist* gune aurrerazalean publikatu duen artikuluak, eta gaztelaniaz *Sin Permiso*-koek *China eta a sus vecinos* bataiatu dute.

Mendebalde aberatsean asko aipatu dira Txinarekiko harremanen ezaugarriak eta kontraesanak, txinatarrek industrian hartu diguten nagusitasuna, gure zor publikoetan daukaten eragina, eta abar luzea. Walden Belloren artikulu hau ez da ari gutaz, Txinak Asiako bere eskualdean ezarri duen dinamikaz baizik.

Eta honetan Belloren iritzia zalan-tzarik gabekoa da: Txina potentzia neokolonialista legez ari da jotzen Asian.

Joan den urtarilaren lehenean sartu zen indarrean Txinak eta Asiako Hego-Ekialdeko Nazioen Elkar-teak –ASEAN ingelesezko sigletan– osatutako mugarik gabeko merkataritza gunea, CAFTA ere deitua: *China-ASEAN Free Trade Area*. Txina, Brunei, Indonesia, Malasia, Filipinak, Tailandia eta Singapuri dira oraingo partaideak, 1.700 milioi jende, 5,9 bilioi dolarreko barne produktu gordina, 1,3 bilioi dolarreko salerosketak. 2015ean Vietnam, Laos, Kanbodia eta Myanmar sartuko dira elkarren arteko negozioetako zergak desegin dituen klub zabal horretan.

Belloren ustean, itun berriaren ondorioak laster hasi dira mami-tzen. “Propaganda fabrikek, Pekin-goek batik bat, aldarrikatu izan dute mugarik gabeko merkataritza denentzako izango zela mesedegarri, Txinarentzako bezala ASEANekoentzako (...) Baina badirudi ASEANeko agintariak hasi direla jabetzen kalteez: mugarik gabeko truke eremu honetan abantaila gehienak Txinarentzako direla”.

Egia dirudi Asiako Hego-Ekialdeak 2003tik aurrera –1997-1998ko finantza krisiak sortutako geldotzea

Txinako Jinjian hiriko Wonderful Shoes oinetako lantegia erakusten du argazki handiak. Ezaguna da European, AEBetan eta oro har Mendebalde aberatsean kontsumitzen diren produktu askoren ekoizpena Txinako lantegietara deslokalizatu dela hamarkadotan, baina antza denez txinatarrekin ez dute lortzen lehiatzea bere inguruko herrialde txiroagoek ere. Bestalde, Txinatik kontrabandoan inportatutako produktuen prezioei aurre egin ezinak kiebrara eraman ditu Tailandia edo Filipinetako enpresa asko. Produktu manufakturatuen kontrabandoa eta mugarik gabeko merkataritza erabiltzean Txina errepikatzen ari da Ingalaterrako erresumak XIX. mendean erabilitako kolonialismoa. Argazki txikioa da Walden Bello, irakasle eta idazle filipinarra.

gainditu ostean— ezagutu duen beroaldi ekonomikoan Txinak egin dituela lokomotore lanak. Nazio Batuen Erakundeak egiaztatu du gehiago zela Txinak auzokoetatik inportatzen zuena haiei esportatzen ziena baino. Baina orain, mundu mailako krisiaren erdian, auzotar guztiok kezkatutik galdetzen dute ea senide nagusiak lagunduko dien ekaitza zeharkatzen. Eta ez da gauza segurua.

Zapatak bezala berakatzak

Mendebaldeko beharginak kezkatutik baldin badaude enpleguak Asiara deslokalizatzen dizkietelako, Walden Bellok dio Txinak gauza bera egiten diela auzo herrietako langileei.

Gainera, eskulana merkeago edukitzeaz gain Txinak bere dirua baliogabetu egin zuen 1994an eta geroztik ASEANeko beste herrialdeetan kanpotikoko inbertsioak urrituz joan omen dira urtero. Europa, Japonia edo AEBetako inbertsiogileek Txina erakargarriagoztat zeukaten beren diruentzako ASEANekoak baino.

Harrigarria suertatzen da Bellok Txinatiko kontrabando masiboaz dioena. Hemen pentsatu dezakegunaren kontra, Vietnameko oskigileak hondoratu egin dituzte txinatarrek kontrabandoarekin: Vietnamentan



saltzen diren zapaten %70-80 kontrabandokoa omen da.

Txinatiko kontrabandoak asko kaltetu omen du Filipinetako industria ere, ez oskigintza bakarrik: altzairua, papera, porlana, plastikoa, zeramika... “Filipinetako usina asko mundu mailan lehiakorrek zirenak ixtera behartu dituzte edo produkzioa eta lanpostuak murriztera, kontrabandoagatik”. Beldur dira CAFTA itunak inportazio txinatar ilegalok legeztatuko ote dituen, egoera larriagotuz.

Nekazaritzan gauzak are okerrago omen daude. Filipinen kasuan, Txinarekiko 370 milioi dolarreko defizita dauka. Walden Bellok kontatu du Benguet eskualdea bisitatu berri duela, fruitu eta barazkietan

fama duen lurraldean, eta hango laborariak etsita aurkitu ditu, Txinatik datorkien uholdeak suntsituko dituelako. Manilak eta Pekinek 2002an sinatu zuten mugarik gabeko salerosketetarako ituna, baina ondorioak orain hasi dira nabarmentzen.

Filipinetako nekazariek jakin dute zer gertatu zaien Tailandiakoei. CAFTAren babesean Txinak eta Tailandiak mugako zergak kendu zizkieten uztar goiztiarreko 200 fruitu eta barazkiri. Teorian bien mesederako zen, herrialde bakoitzeko laborantzaren espezializazioei dagokienez. Baina Tailandiak erauzi zizkien arren zergak Txinako baratzuri eta tipulei, Txinako funtzionarioek oztipoa oztupoaren gainean

jartzen zieten Tailandiatiko inportazioei. Herrialde honetako baserri askok porrot egin zuen itun berriarekin, eta Belloren iritzian —ondo ezagutzen du Tailandia, bertan dauka egoitza *Focus on the Global South*— haserre horrek ere izan zuen zerikusirik 2006an Thaksin Shinawatra lehen ministroa kargutik kendu zuen kolpe militarrekin.

Txinak merkatuen irekidura aldarrikatzen du, baina gero bere kome-nientzian kudeatzen du. Irekidura esportatzeko; ez hainbeste inportatzeko. Aldiz, ASEANeko herrialdeetan orain hasi dira ohartzen ez direla hain lehiakorrek txinatarren ondoko.

Eskulana modu intentsiboan behar duten produktueta Txina da txapeldun, ez dago eskulan merkeagorik eskain dezakeenik. Teknologia handikoetan ere —*high tech*— aurreko muturrean dabilta. Nekazaritzan ere hiperlehiakorrek dira txinatarrek, Tailandia eta Vietnam geratuko litzaieke arroza, Vietnam eta Indonesiari kafea, Filipinei kokoa.

Lehengaiak geratzen zaizkie auzoko bizilagunei. Eta honetan, dio Walden Bellok, “Txinak darabil antzinako lan bereizketa koloniala. balio erantsi gutxi daramaten lehengaiak eta baserriko produktuak jasotzen ditu, eta Asiako Hego Mendebaldeko ekonomiei saltzen dizkie balio erantsi handiko ekoizpenak”.

Eginkizunen eta etekinen banaketa horretan, nabarmena da Txina aterako dela irabazle eta industria bezala nekazaritza ahulduko zaizkien ASEANeko herrialdeak galtzaile. Kolonialismo tipikoa. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net



Iñaki Murua

Mezua eta konpromezua

Z

ertan ari gara ezin badugu mezua konpromezuarekin lotzerik lortu? Zertarako da mezua, zer balio du gudan inolako eraginik ez duen mezuak? Itxura egiteko baino ez den mezuak?

Mezu hau irakurri berri dut Goierriko Gaztetxe baten aurrean (gazteek beraiek jarria noski!): “Gaztetxera etorri nahi bazu, ez puskau erretrobisorerik eta zaindu ingurunea!”. Txalogarria mezua, benetan! Baita hau idatzi dutenek hartu eta hedatu nahi duten konpromezua ere.

Zer gertatzen ari zaigu hau egunerokoan hausten ari bagara/badira? Posible al da orain arte helburu polit eta giro jatorrekoak direnak, gogaikarri bilakatzea? Batzuen egitekoa da ala denok behar dugu honetan ardura hartu? Denok parte hartu behar dugu prozesu honetan, baina eskolan eta etxean soilik? edo baita kalean eta leku guztietan ere? Nola liteke kalea bete jende helduz, eguerdian edo arratsaldean bildua, eta dendariak antolatutako ekin-tza publikoan eta plaza nahiz inguruko ibilbideak plastikoz, azalez eta zaborrez beteta uztea?

Zertan ari gara arrazakeriaz larriturik eskoletan eta hezkuntzan saiatzeko, gure inguru hurbilean asteburuetan ikus badaiteke, euskaldun koadrila gaztea, tartean sudamerikar bat eta, koadrilakoek otartekoak eskatzera sudamerikarra bidali eta hark irteetan, denak ospa egin xentimorik ordaindu gabe? Nori leporatzen diogu errua? Nor ari da arrazakeria erabiltzen bere delituak estaltzeko, gure seme-alabak ez badira? Zein da erabilia? Eta mezua?

Aldiz, adibide soil bat asteburu berean, Cauterets eski estazioan, aita-semeak sartu tabernan, semeak 14 urte, eta aitak bi garagardo eskatu eta zerbitzariak berehala: “Ez, gazte honek ez ditu 18 urte eta ezin diot edari hori zerbitzatu” eta aitak “ez, ez, orain dator ama eta bereztako da”. Hau bai jarrera eredu-garria eta kar-teletako mezuarekin bat datorrena, helburua ez baita edozeinen kontura dirua irabaztea. Gure aitonak zioen moduan: “Nolanahi ondo dauna, edozein moduz gaizki daul”.



DANI BLANCO

Lanbidez ezagutzen ditut hainbat gazte eredu-garri behar den lekuan dagokien mailan ibiltzen dakitenak eta gainera, gizarteari eta herriari, antolakuntzan nahiz ideietan eta sormenean, ekarpen bikainak eta opa-roak egiten dizkietenak. Baina gurasoen ardura da beren seme-alaben jarraipena egitea eta nerabezaroan edo gaztetxoak direnean oraindik gehiago. Momentu horretan jakin/asmatu behar da mugak jartzeko eta baiezkoa edo ezezkoa esaten/adosten/ikusten/onartzen. Askotan ez baitakite mugak adosten eta hortik sortzen da inseguritatea eta nortasunik eza.


Dena den, gurasoak diodanean ez naiz ari, gure seme-alabek soilik, ez. Gureak eta bes-teenak ere badira gure ardura. Gizartean ardurak hartzen ikasi eta irakatsi beharra daukagu eta, etorkizuna gazteak badira (hainbeste aldiz hain erraz aldarrikatzen duguna), noiznahi eta nonahi gaizki dagoena zuzendu edo zuzenarazi behar diegu. Guk dugu gureen eta gure lagunuen oinordekoen ardura eta haiek gureena, gu ez gaudenean. Hala izan da orain baino lehenago ere gure herrietan; norbaitek ikusten bagintuen okerren bat egiten, ez zigun isilik utzi-ko eta laster jakingo zuten gure etxeetan, ongi egindakoa jakingo zuten bezalaxe. Hori da heziketan ardurak konpartitzea.

Interesgarria litzateke eztabaidatzea —arlo guztietan— nolako giroa nahi dugun gure herrietan, harreman goxo, aske eta gustagarriak ala “*loque de queda*” moduko bat jarri AEBetako hainbat herritan bezala? Agian has gaitezke, duela hogeita hamar urte inguru Beasainen bezala, gauetan gurasoen bi auto patruilatzeko, eskopetak kargaturik, delinkuentziaren aurkako neurri gisara?

Zer, orduan, gazteei aukerak jarri behar dizkiegu beren kontraesanak dagozkien garaian bizi ditzaten, beren artean eztabaidatuta, landuta, borroka eginda... eraikitako gaztetxeetan ala guk moldatutako gaztegunek sortu behar ditugu eta beren iniziatiba moztu, gaztetxeak ordezkatzeko nahiz itxiaz? Zein da biderik segurua —ez erosoena eta motzena— gazte arduratsuak sortzeko? ■

Guk dugu gureen eta gure lagunuen oinordekoen ardura eta haiek gureena, gu ez gaudenean. Hala izan da orain baino lehenago ere gure herrietan; norbaitek ikusten bagintuen okerren bat egiten, ez zigun isilik utziko eta laster jakingo zuten gure etxeetan, ongi egindakoa jakingo zuten bezalaxe

ASTE HONETAKO zozketak



Saiaz Getaria hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Roke Deuna, 25
Getaria GIPUZKOA

www.siaizgetaria.com

1



Urki txakolina

Txakolindegira bisitaldia
10 laguneko taldearentzat

Askizu Auzoa
Getaria GIPUZKOA

www.urkitxakolina.com

2



Zientziaren kutxagunea

4 harpideentzat
bina sarrera

ikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.mirammon.org

3



Bi marra arrosa Txalaparta Argitaletxea

5 liburu opari

Navaz y Vides kalea 1
Tafalla NAFARROA

www.txalaparta.com

4



Des-kontrol, Gatibu, Une eta Ost

2 CD sorta opari

Baga Biga

www.baga-biga.com

5

AURREKO ASTEKO IRABAZLEAK

IRIARTE JAUREGIA

- Begoña Azpeltia Begiristain (Alegia)

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

- Ibon Barrenetxea Olasolo (Bilbo)
- Jaione Goienola Guarrotxena (Galdakao)
- Miren Olabarria Arana (Bergara)
- Xabier Arrizabalaga Larrinaga (Ondarroa)
- Amaia Goitia Saenz de Buruaga (Gasteiz)

AMAGOIA I ETXEKAR - LEPOKOA

- Xabier Basauri Bengoa (Donostia)

DESIRA PLAZER 68-08

- Ardatz Kultur Elkartea (Gasteiz)
- Malentxu Arrospide Arrate (Lizartza)
- Jesus Miguel Zabalo Bilbao (Galdakao)
- Josune Arandia Belaustegi (Lemoa)
- Eider Illarramendi Azkue (Zarautz)

BARRENCE WHITFIELD ETA PETTI

- Idoia Atxaga Mendizabal (Hernani)
- Haritz Eguren Urrestarazu (Zerain)
- Xabier Ezpeleta Azueta (Elgeta)
- Manuel Arregi Urrutia (Zestoa)



Liburu gomendagarri, erabilgarri eta beharrezkoa guztiontzat

"Comer bien para vivir mejor" gida osatua da, elikagai erabilieneen propietate nutrizionalak, gaixotasunei aurre egiteko eta horiek prebenitzeko aholkuak eta haurtzarotik zahartzarorainoko adin talde guztientzako gomendioak biltzen dituena.

Apirilaren 16tik aurrera, zure kioskoan

Prezio ezin hobea: GARA  + 12,95 €

Ezaugarriak: 152 orrialde koloretan. Argazkiekin osatua

Azal gogorra. Neurriak: 21 x 22 cm